

# Berrigara



Koreografo  
berrien  
erakustaldian

**Edu Muruamendi** araz

Tailer honetan olio aldaketa  
2.995 PTatik aurrera

Asteburuan ere irekita

MECA  
LERRA  
millaga 5  
RGARA  
943 76 40 68



Ez diezazula  
ihes egin

RENAULT  
Autoren  
zure kolore berria



# Azken berrikuntza edertasun tratamenduetan KOLORETERAPIA



Aurpegi eta lepoaren tratamendu orokorrak

Saio  
gutxitan  
igarriko duzu  
aldea



Zelulitisaren tratamendua



## LILURA

Lilurak beti zauzka gogoan.  
Galde ezazu inolako konpromezu barik.

Bidekurutzeta 7, Bergara. Tf. 76 31 71.

# egizabal

## Oinetakoak eta poltsak



Ferrerias 9 • ARRASATE. Tf. 79 66 01

Bidekurutzeta 13 • BERGARA. Tf. 76 12 28



# Oporraldiak eta opariak

Arantzazu Loidi / Kazetaria

Aste Santua. Batzuk "aste santuak" esaten dute, santutasuna asko galdu arren askorentzat bi aste direlako, edo auskalo zergatik. Gehiengoarentzat opor egunen sinonimo besterik ez da, hala ere, eta erlijio zentzua prozesioetan baino ez da ia ageri.

Egun hauen bezperatan oporrak izaten dira hizketagai ohizkoena, ia eguraldia adina. (Aurten eguraldia gehiago, agian). Bakazinoez berba egitean, galdera bat zuzenean: Nora zoaz? Norabait joatea derrigorra delakoan. Beste gauza batzuekin bezala gertatzen da joateren kontu horrekin ere, halaxe delakoan gaudela. Eta oraingo honetan sekula ez bezala ikusi dut joan behararren afana, beharbada neu etxean geratu naizelako. Umeen arteko elkarrizketei erreparatzea modukorik ez dago: "hara joateko (bere opor lekuari buruz, ume batek besteari), bi lo egin behar

dira autoan". Urrutitasuna, distantzia eta norbere oporren inportantzia neurtzeko modu polita. Esateko modua umerena da, baina esaten duena ez. Beste hainbeste gertatzen da urtebetezearekin ere (orain "zorionekin", zoritxarrez): "Zer erregalatu dizute? Zenbat erregalo jaso duzu?". Eta arrazoia edozein dela ere oporretan etxean geratu dena, edo oparirik jaso ez duena, gutxiago delakoan geratuko da. Baina, hori bai, etxean geratzen denarentzat ere asmatu dugu titulua, eta "herri-zain-

tzaile" kargua ematen diogu ("ni hementxe, herria zaintzen").

Baina kontua leku eta gauza berriak ezagutzea eta bidaia egitea bada, etxean egonda ere ederto bete dut baldintza hori: Jesukristoren garaia filmeen bidez, letra bidezko bidaia bi lagunengatik liburuan barrena, inguruko mendiatako elurra, adinekoren memoriari esker beste garai bateko kontuak... atsedena eta gozamina inora joan barik. Txarrena, komunikabideen bidez joan diren ibileren berri, hango eta hemengo errepideen egoera, eta oporrak amaitzeko zenbat falta den gogorarazten izan ditugula etengabe.

Beharbada neure burua kontsolatzen ari naizela eta inbidiak jota nagoe la esango dit norbaitek. Gure lagun bati honela esaten dio amak kontu horretaz: "Inbidixia partitu zan mahaixan, han izango hintzanan hi be". Erantzuna: "Bai, zeure altzuan jarrirta". B

*"Eta arrazoia edozein dela ere oporretan etxean geratu dena, edo oparirik jaso ez duena, gutxiago delakoan geratuko da."*

■ barruan




## Maite Etulain

Aguifes-eko koordinatzailea

*"Oraindik ere ezjakintasun handia dago gizartean gaiso psikikoen inguruan"*

8. orrialdean.



## Eneko Iturrospe

Piraguista

*"Piraguismo lasterketa batean, gauzarik inportanteena ateak ez ikutzea da"*

22. orrialdean.



## Oihana Garitano

Pintorea

*"Inguruko paisajeak eta nire neure eta inguruko gorputzak pintatu ditut"*

27. orrialdean.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1937.** Apirilaren 15ean, Gerra Zibilean, Algodonerako San Antonioko lantegia bonbardeatua izan zen. Langile askok bizia galdu zuten eta kalte material ugari izan ziren.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1922.** Apirilaren 10ean, Emakume Abertzale Batza sortu zen.

**1931.** Apirilaren 14ean, Eibarko udaletxean Errepublikak proklamatu zen, beste inon baino lehenago.


**1980.** Apirilaren 9an, Carlos Garaikoetxea Lehendakaria hautatua izan zen.

### MUDUAN GERTATUA

**1920.** Apirilaren 15ean Titanic itsasuntzia hondoratu egin zen. 1.500 lagunetik gora hil ziren.

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*



Aste Santuko euri zaparradak eta tenperatura hotzak izango ez baditugu ere, hodeiak izango dira nagusi asteburuan, zaparratuen batez ere. Halere, eguraldiak pixkanaka hobera egingo du. Tenperaturak gora egingo du.

## Ilargiaren aldiak



Ilbete: apirilak 11



Ilbehera: apirilak 19



Ilberri: apirilak 26



Ilgora: maiatzak 3

## Eguzkia

*Domeka, apirilak 19*



Sortu: 06:31 Gorde: 20:00

## Tenperaturak eta euria Bergaran

L.M. Agirre	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 2</b>	20	13	-
<b>Eguakitza 3</b>	22	15	8,4
<b>Zapatua 4</b>	18	8	1,3
<b>Domeka 5</b>	18	8	0,7
<b>Astelehena 6</b>	16	2	11,8
<b>Martitzena 7</b>	15	5	9,2
<b>Eguaztena 8</b>	13	7	3,6
<b>Eguena 9</b>	12	3	9,5
<b>Eguakitza 10</b>	8	2	19,9
<b>Zapatua 11</b>	11	0	26,8
<b>Domeka 12</b>	8	2	32,5
<b>Astelehena 13</b>	11	1	16,2
<b>Martitzena 14</b>	14	1	0,5
<b>Eguaztena 15</b>	14	7	9,2

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

### Anpor

Pertsona gizen eta baldarrari esan ohi zaio.

- *Aspaldixan ikusi barik neukan Pedro, eta, aura dago anporra, aura.*



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Belarriak eta osasuna

Liverpooleko Unibertsitatean egindako ikerketa baten arabera, sudur-hegatsek eta belarri-gingilek neurri aldaketak izaten dituzte maila hormonalen gorabeheren ondorioz. Emakumeengan hilerero ematen dira aldaketak eta gizonezkoengan, berriz, egunero. Hormona-aldakuntzok, libidoan, loaldian eta buru-lanean izaten dute eragina.

## Farmaziak

### Eguakitza 17:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 76 11 05.  
Gauze: AMEZUA, Arrasate. 79 09 74.

### Zapatua 18:

ESTELLA. *Matxiategi* 5. Tf. 76 19 63.  
Gauze: ZABALA, Arrasate. 77 16 30.

### Domeka 19:

ESTELLA. *Matxiategi* 5. Tf. 76 19 63.  
Gauze: RUIZ, Arrasate. 79 14 09.

### Astelehena 20:

MOZOS. *San Pedro* 4. Tf. 76 12 15.  
Gauze: MORALES, Arrasate. 79 18 65.

### Martitzena 21:

CAMACHO. *Oxirondo* 4. Tf. 76 11 74.  
Gauze: AZKOAGA, Arrasate. 79 15 15.

### Eguaztena 22:

PUY. *Barrenkalea* 25. Tf. 76 16 87.  
Gauze: ESPAÑOL, Arrasate. 79 14 88.

### Eguena 23:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 76 11 05.  
Gauze: CORCUERA, Arrasate. 79 22 28.

## Ogia

**Domeka 19:** Mizpildi.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	
DYA	78 71 5
Gurutze Gorria	76 55 7
Larrialdiak	76 12 9
Anbulatorioa (txanda)	76 24 4
Anbulantzia	55 48 6
Udaltzaingoa	77 91 0
Ertzaintza	76 53 4
Suhiltzaileak	78 28 0
Osasun Etxea	76 24 4
Arrasateko ospitala	79 53 0
Asepeyo	76 18 4
Pakea	76 13 4
Angiozarko medikua	78 90 0
Antzuloako medikua	76 62 0
<b>GARRAIOAK</b>	
Euskotren	45 00 0
PESA	902 10 12 0
Taxiak	76 13 5
RENFE	28 35 9
<b>UDALA</b>	
Udaletxea	77 91 0
Udal Artxiboa	77 91 0
Igerilekuak	76 20 5
Kultur Etxea	77 91 0
Liburutegia	77 91 0
Mizpizualde Egoitza	76 13 0
<b>BESTELAKOAK</b>	
Epaitegia	76 14 0
Erregistroa	76 13 0
Jardun	76 36 5
Jubilatuena Etxea	76 21 4
Postetxea	76 28 5

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 10

4-14-20-32-34-43 (osag.36/er.3)

#### Astelehena 13

14-19-22-29-35-49 (osag.45/er.0)

#### Martitzena 14

3-5-13-21-29-35 (osag.26/er.8)

#### Eguaztena 15

1-4-6-9-29-38 (osag.49/er.7)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 11

7-8-11-32-37-45 (osag.40/er.2)

#### Domeka 12 *Gordoa*

4-5-14-31-32-41 (osag.30/er.8)

### ONCE

**Eguakitza 10:** 23.250 (K. seriea: 180)

**Astelehena 13:** 85.113

**Martitzena 14:** 27.023

**Eguaztena 15:** 39.528

### BESTE BATZUK

#### Bedelkar, harakinak

Apirilak 10: 5.027

#### Bedelkar, harakinak:

Apirilak 17: 5.113

# zorion agurrak

**URTEURRENA**


**Jose Cot Conti**

Lehen urteurreneko meza domekan,  
apirilak 19, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu  
aurretik eskerrik asko bere alargun Carmen  
Luque eta seme-alaben partez.*




**Leire Sahuillo**  
Apirilaren 11an  
6 urte. Zorionak  
etxekoan, Nuriaren  
eta Jonen partez!



**Jon Blazquez**  
Apirilaren 8an  
14 urte. Zorionak  
koadrilako neska-  
mutilen partez!



**Jon Ugartetxea**  
Apirilaren 3an  
14 urte. Zorionak  
koadrilako neska-  
mutilen partez!



**Leire Larrañaga**  
Apirilaren 18an  
14 urte. Zorionak  
koadrila eta familia-  
ren partez!



**Irene Aguayo**  
Apirilaren 15ean  
5 urte. Zorionak  
etxekoan eta  
Nahiararen partez!



**Idoia Regorigo**  
Apirilaren 11n  
3 urte. Zorionak  
etxekoan partez!



**Mertxe Arrieta**  
Apirilaren 19an  
urtebetetzea.  
Zorionak etxekoan  
partez!



**M. Karmen Saez**  
Martxoaren 26an  
51 urte. Berandu  
baina zorionak Ami-  
lotxekoan partez!



**Josu Barrenetxea-  
Arando**  
Apirilaren 8an  
urtebetetzea.  
Zorionak! Etxekoak.



**Sarai Ruiz**  
Apirilaren 11n  
9 urte. Zorionak  
famiiliakoan partez!



**Woody**  
Apirilaren 8an  
31 urte. Zorionak  
Agirrebeñakoan  
partez!



**Maika Jaso**  
Apirilaren 11n  
30 urte. Zorionak  
iloba Maikaren  
partez!



**Steve Rico**  
Apirilaren 19an  
17 urte. Zorionak  
etxekoan partez!



**Aitor Elorriaga**  
Apirilaren 20an  
8 urte. Zorionak  
etxekoan partez!



**Jaione Igartua**  
Apirilaren 17an  
14 urte. Zorionak  
famiiliakoan partez!



**Ainhoa Garmendia**  
Apirilaren 19an  
10 urte. Zorionak  
lehengusinen  
partez!



**Asier Gonzalez**  
Apirilaren 12an  
10 urte. Zorionak  
famiiliakoan partez!



**Jone Santos Mujika**  
Apirilaren 4an  
23 urte. Zorionak  
etxekoan partez!



**Aimar Igarza**  
Apirilaren 19an  
6 urte. Zorionak!  
Famiiliakoak eta  
arriba Nagore.



**Mariñe Jauregi**  
Apirilaren 18an  
urtebete. Zorionak  
guraso eta ahizpa  
Amaiairen partez!



**Jose Ignacio  
Ugarteberu**  
Apirilaren 9an  
urtebetetzea. Zorionak!  
Famiiliakoak.



**Ion Iturbe Agirre**  
Apirilaren 15ean  
12 urte. Zorionak  
famiiliakoan partez!



**Arantxa Laskurain,  
Txintxuren ama.**  
Apirilaren 9an  
urtebetetzea.  
Zorionak! Etxekoak.



**Amaia Txintxurreta,  
Txintxu.**  
Apirilaren 8an  
26 urte. Zorionak  
etxekoan partez!



**Ander**  
Apirilaren 16an  
9 urte. Zorionak  
gurasoak, Mikel eta  
Anderren partez!



**Estibalitz Saizar**  
Apirilaren 8an  
42 urte. Zorionak  
polideportibokoan  
partez!



**Jesus Mari  
Arizabaleta**  
15ean 44 urte.  
Zorionak! Alaba eta  
emaztea



**Jose Sanchez**  
Apirilaren 17an  
47 urte. Zorionak  
etxekoan partez!



**Miren Fernandez**  
Apirilaren 12an  
6 urte. Zorionak  
Uxue eta  
famiiliakoan partez!



**Victor Manuel  
Poza**  
Apirilaren 13an  
2 urte. Zorionak  
etxekoan partez!



**Xabier Olabarria**  
Apirilaren 17an  
7 urte. Zorionak  
famiiliakoan partez!



**Koldo Martin**  
Apirilaren 2an  
16 urte. Zorionak  
lagunen partez!



**Ane Zangitu**  
Apirilaren 12an  
7 urte. Zorionak  
aitona-amonen eta  
izeben partez!



**Olatz Alberdi**  
Apirilaren 17an  
urtebete. Zorionak  
famiiliakoan partez!

■ hildakoak

**BERGARA**  
**Jose Maria Mujika Alustiza**  
Apirilak 2, 69 urte.  
**Kosme Agustin Muguruza Lizaso**  
Apirilak 3, 84 urte.  
**Maria Intxausti Ibarra**  
Apirilak 5, 69 urte.  
**Dolores Rodriguez Rot**  
Apirilak 10, 39 urte.  
**Antonia Cuesta Ots**  
Apirilak 12, 74 urte.  
**Francisca Gantxegi Lizarralde**  
Apirilak 12, 89 urte.

**ANTZUOLA**  
**Patxi Lete Laskurain**  
Apirilak 4, 65 urte.

■ jaiotakoak

**BERGARA**  
**Beñat Landa Zubizarreta**  
Martxoak 11.  
**ANTZUOLA**  
**June Azkarateaskasia Bakaikoa**  
Apirilak 7.

■ mezak

<b>Santa Marina</b> Domekak: 11:30, 13:00. Zapatuak: 19:00. Lanegunak: 19:30.	<b>San Lorenzo</b> Zapatuak: 20:00. <b>Angiozar</b> Domekak: 10:30. Eguakitza: 19:00.
<b>San Pedro</b> Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	<b>Monja Zaharrak</b> Domekak: 19:30. Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
<b>Osintxu</b> Domekak: 11:30. Zapatuak: 19:00.	<b>Mizpirualde</b> Domekak: 11:45. Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
<b>Elosu</b> Domekak: 10:00.	<b>Mariairen Lagundia</b> Domekak: 10:00. Zapatuak eta lanegunak: 09:00.
<b>Ubera</b> Domekak: 10:30.	<b>Antzuola</b> Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
<b>San Juan</b> Domekak: 11:00.	<b>Uzarraga</b> Domeka: 10:00.
<b>Basalgo</b> Domekak: 13:00.	
<b>San Prudentzio</b> Domekak: 10:30.	
<b>Labegarieta</b> Domekak: 11:00.	

## ANTZERKIA

► **Green Ginger** taldearen *Slaphead* antzezlanaren hilaren 25ean, 22:30etan Amaia antzokian (Arrasate). Domekan, hilak 26, **Leo Bassi** *Instintos ocultos* ikuskizunarekin, 19:30etan Amaian.

## MUSIKA

► **Lorelei** taldea gaur, eguakitzan, Elorrioko Arriola kultur aretoan, 23:00etan.

## ERAKUSKETAK

► **Mikel Diez**en oroime-nezko txotxongilo erakusketa apirilaren 23tik maiatzaren 3ra Kultur Etxean.

► **Oihana Garitano**ren margo erakusketa Nahikarín.

► **Ricardo Azkargorta**ren margoak Eibarko Portalea aretoan, maiatzaren 5era arte, astebarruan 19:00etatik 21:00etara eta zapatutan 12:00etatik 14:00etara.

► **Pello Alberdi**ren margoak Bilboko Berta Belaza galerian maiatzaren 12ra arte, 11:00etatik 13:30etara eta 17:30etatik 21:00etara (zapatu arratsaldean itxita).

## IKASTAROAK

► **Argazkigintza** ikastaroa

### KONTZERTUA

## Saxon

**Noiz:** Apirilaren 18an, zapatua, 21:30etan.

**Non:** Jam aretoan.

**Sarrera:** 2.200 aurrez eta 2.500 takilan.

Saxon, heavy talde ezagunenetakoa bat iritsiko da bihar Bergarara. 1979 urtean ezagutzera eman zen talde britainiarrak hamaika jira burutu ditu dagoeneko eta bihar bere kantu ezagunenak joko ditu Amilagakoa aretoan. 1995ean estudioko azken diskoa kaleratu zuen Saxonek ("Dogs of war") eta, orain gutxi, 1982ko "The eagle has landed" zuzeneko diskoaren arrakasta errepikatu nahirik, kantu berriak eta klasikoak biltzen dituen zuzeneko beste lan bat plazaratu dute ("The eagle has landed II"), besteak beste, "Crusader", "Princess of night" edota "Wheels of steel" kantuak dituenak. Oraindik ere taldeak jarraitzen du munduan zehar eta nostalgikoek ere aukera paregabea izango dute talde-

aren momentuko egoera zein den jakiteko. Graham Oliver kitarrajoleak taldean utzi du, baina Saxonek bere estiloari eus ten dio oraindik. Orain egiten ari diren jira amaitu ondoren, udan disko berria prestatzeari ekingo diote.

Bestalde, Ratos de Porao taldearen kontzertua izango da gaur, eguakitzan 22:00etatik aurrera Jamen. Aurretik, Beto Mosh talde arrasatearra arduratuko da gero berotzeaz. Ratos de Porao brasildarrek "Carniceria tropical" euren hamargarren diska kaleratu berri dute, punk-rock estiloa jorratuz.

Musika adituen arabera, Colera eta Sepultura taldeen arteko zubia izan da Ratos de Porao eta Joao Gordo abeslariaren taldeak mezuz beteriko abestiak dakarzikin oraingoan. **B**



Saxon talde beteranoaren rock gogorarekin disfrutatzeko aukera zapatuan Jami-

(apirilaren 25etik ekainaren 6ra, zapatuetan 10:30etatik 13:30etara) eta irrati tailerra (apirilaren 25etik ekainaren 13ra, zapatuetan, 16:00etatik 18:30etara) Arrasaten. Plaza mugatuak. Argibideak eta izen-ematea Gazte Bulegoan, 77 00 65.

## LEHIAKETAK

► **Jardunek** Bergarako jaietan aterako duen pegatinarako esaldi lehiaketa deitu du. Herriko taberna eta ikastetxeetan jarritako kaxetan laga ahal izango

dira proposamenak apirilaren 25era arte. Irabazleak 10.000 pezeta jasoko ditu.

► **Bergarako XIII. Literatur Lehiaketa.** Adinaren arabera, bost talde bereiztuko dira eta lanak apirilaren 22rako

## ZUBIETA

elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA, ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK.**

Kruz Gallastegi 2 behea  
☎ 76 23 48



Kontxi Idigoras

Asteburuetan bertako babak eta sabieskia

SALBADOR 10 ELGETA TLF. 76 82 73

## DENA 100etik

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta 3

## ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14 behea  
BERGARA  
Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

eman beharko dira Udaleko Euskara Zerbitzuan.

► **I. Abdon Juaristi**  
**Pintura Lehiaketa.**

Kartelen gaia zezenak eta Bergara izango da. Estilo eta teknika librean, markorik gabe, lanak euskarri gogorrean edo bastidorea-rekin aurkeztuko dira, 55x46 cm. eta 146x114 cm. bitarteko neurrian. Lanak apirilaren 20tik 30era bitartean entregatu beharko dira Kultur Etxean, 16:00etatik 21:00etara. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka oroigarria jasoko du.

► **Ipuin Erotikoen III. Lehiaketa**, 1982an edo lehenago jaiotakoentzat. Lanen luzera bost eta sei orrialde artekoa izan beharko da. Lanak, apirilaren 24a baino lehen, helbide honetara bidali behar dira: Euskarabila elkarte, 146 PK. 48970 Basauri.

**DEIAK**

► **Gipuzkoako XXIX. Hiru Txirloko Bola Txapelketaren** 5. jardunaldia bihar, zapatua, Mahaztin, San Pedron, 17:00etan.

► **Gorla Alpinok** eta Pol-Polek Artikutza-Sunbillara egun osoko mendi irteera antolatuta dute hilaren 26rako.

► **Gipuzkoako Odol Emaleen** elkarteko batzarra

apirilaren 26an Bergaran. Bazkarirako izen ematea (3.000 pezeta) Puy eta Guallar farmazietan, Agirreña zapata dendan edota odol emaleen lokalean astelehena baino lehen.

► **Zezenzaleak** taldeak Manolo de los Reyesek Rada-n (Nafarroa) duen El Cortijo finkara irteera antolatuta du apirilaren 25erako. Irteera goizeko 8etan egingo da eta itzulera, 22:00etan. Izen-ematea (6.000 pezeta, bazkaria barne) Ganbara kafetegian (76 55 75) martitzenera arte zabalik.

► **Udaleku** irekietan begirale lanetan jardun nahi dutenek izena eman dezaketek hil honen amaierara arte Xipizaro ludotekan (76 23 76).

**KINTADAK**

► **1943**ko kintoen anaiarteko eguna apirilaren 25ean. Santa Marinan meza izango da eta ondoren afa-ria Antxoni jatetxean. Txartelak Azkarate estankotan, San Pedro kalean.

► **1964**an jaiotako bazkaria apirilaren 25ean. Argibideak Plazako kioskoan (Luke).

► **1953**an jaiotako bazkaria uztailearen 4an, Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerape-na) Antxonin bertan.

**Z I N E A**

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades**  
**Desmontando a Harry**

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

**Flubber y el profesor chiflado**

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30.  
Domeka: 17:00.

**ARRASATE. Alai zinema**  
**El indomable Will Hunting**

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena: 19:00, 21:00.

**EIBAR. Unzaga**

**Flubber y el profesor chiflado**

Eguakitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**

**Las brigadas del espacio**

Eguakitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**

**Hard rain**

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**El sabor de las cerezas**

Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ANTZUOLA. Gazinema**

**La sombra del diablo**

Eguakitza: 22:00.

**Operacion elefante**

Domeka: 16:30.

**ELORRIO. Arriola**

**El coleccionista de amantes**

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

**El circulo perfecto**

Eguena, zine-kluba: 20:15.

**DESMONTANDO A HARRY**

**Zuzendaria:** Woody Allen.

**Aktoreak:** Woody Allen, Kirstie Alley, Caroline Aaron, Robin Williams, Elizabeth Sue.

*Harry Block* krisialdi kreatiboa murgildurik dagoen idazle dugu. Halere, krisialdi horri etekina lortzen jakingo du, bizitzan gertatzen zaizkion pasarteak bere nobeletan isladatuz. Woody Allen-en aurreko filmeetan gertatu den bezala, sexua, erlijioa, psikiatria edota giza harremanak izango dira aztergai, umorea nagusi delarik.



**FLUBBER Y EL PROFESOR CHIFLADO**

**Zuzendaria:** Les Mayfield.

**Aktoreak:** Robin Williams, Marcia Gay Harden, Christopher McDonald, Raymond Barry.

*Philip Brainard* noraezean dabil eta *Sararekin* ezkondu behar izana ere ahaztu du birritan. *Brainard* maisua burubelarri ari da lanean bere proiektu berria, *Weebo* errobota martxan jarri nahirik. Azkenik, ezkontzeaz dagoen egun berean, edozein objektu abiadura handian hegaran jartzen duen sustantzia bat asmatuko du...


BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 76 62 02 eta 908 77 64 91(mobila)

Eguneroko menuak,  
parrilan egindako  
erreki  
bereziekin.



**DANTZARAKO PISTA ETA GUZTI!**

San Juan auzoa, Elgetarako bidea, Bergara. Tf. 76 35 51.

**LASTER  
TERRAZA  
IREKIKO  
DUGU!**

Enkarguak hartzen dira

**Maite Etulain Agufes, Gipuzkoako Senide eta Gaiso Psikikoen Elkar-terko koordinatzailea du-  
gu. Martitzenean, 19:00-  
etan, hizlari izango dugu  
Bergarako Kultur Etxean  
elkar-teak egiten duen  
lana ezagutzera eman  
eta gaiso psikikoen ko-  
lektiboaren bizitza kalitea  
hobetzeko dauden  
aukerak aztertzeko.**

**G.** Zelako lana egiten du Agufesek?

**E.** Elkar-tea 1985ean sortu zen eta hazkunde nabaria izan zuen 1992tik aurrera, orduan hainbat zerbitzu martxan jarri zirelako. Ospitalea eta familiaren artean tarteko egiturak egon behar direla uste dugu eta hor katzan da Agufesen lana. Diputazioarekin eta Osakidetzarekin hitzarmenak ditugu eta, horrez gain, 500 bazkide inguru dauzkagu une honetan. Gaiso psikikoen eta euren senideek bizi duten arazoarekiko kontzientzia piztu nahi dugu gizartean, eta horrez gain, gaisoen parte-hartzea bultzatu nahi dugu, gizarteak baztertu ez ditzan. Helburu horrekin, aiasialdiko zerbitzua, babestutako pisuak, eguneko ospitalea edota lan egin aurreko lantegia jarri ditugu martxan.

**G.** Zein da zuen lan esparrua?

**E.** Gehienbat Donostialdean lan egiten dugu, baina gure asmoen artean bailara honetan zer egin daitekeen aztertzea dago. Horretarako, eskaera beharrezkoa da aurretik eta, beraz, sentsibilizazio kanpaina bati ekingo diogu. Gainera, bailara honetan berezitasun bat ematen da; anbulategiko asistentzia Arrasateko Buru Osasunerako zentruan egiten da; ingresoak, berriz, Gasteizeko Las Nieves ospital-  
e-  
n  
z  
i  
n  
z  
E  
b  
a  
e  
n  
t  
n  
b  
t  
t  
t  
e  
k  
a  
e  
n  
t  
i

**MAITE ETULAIN**  
Agufes-eko koordinatzailea

*“Oraindik ere ezjakintasun handia dago gizartean gaiso psikikoen inguruan”*



Maite Etulain hizlari izango da martitzenean Kultur Etxean, 19:00etan.

talean. Banaketa ematen da, beraz. Jendeak jakin behar du aprobetxatu ditzakeen zerbitzu sozial batzuk eskura dituela eta osasun asistentziala ez den esparruan lan egiten dugula. Lehen kontaktu bat izateko martitzeneko hitzaldia antolatu dugu eta maiatzean sentsibilizazio kanpainarekin aurrera egingo dugu.

**“Gaiso psikikoak ez baztertzeko neurriak hartzea ezinbestekoa da: integrazio laborala, formazioa eta informazioa bultzatuz”**

**G.** Zeintzuk dira gaiso psikikoen integrazio sozial lortzeko oztoporik nagusiak?

**E.** Jende gehienak ez du ezagutzen “gaiso psikikoen” terminoa, ezjakintasun handia dago gai honen inguruan eta komunikabideetatik askotan, kasu larriekin berrikarrik lotzen da. Alarma-hotsa pizten da gai honekin sarrigi eta ez da konturatu harten gaisoek inguruan duten munduarekin sentsibilizazioa eta kontzientzia egiten dutela. Arruntago da beraiek gizartearen mehatxua sentitzea euren parte-hartzea mehatxatzea baino. Sentsibilizazioa eta kontzientzia falta da oraindik gizartearen aldetik.

**G.** Badago gaiso psikikoen errolarik?

**E.** Biztanleriaren %12 buru osasuneko arazoa duen bat izan duela kalkulatu da eta gaisoen inguruan jende askok dauka arazoa. Guztiok daukagu gaitasorik jartzeko arriskua eta zoritxarrez, estigma sozial duen arazoa da, horretatik hitz egitea zaila izaten da eta askotan ezkutatu egiten den arazoa da.

**G.** Zeintzuk dira gaiso psikikoen behar nagusiak gaur egun?

**E.** Gaisotasun psikikoen erabat gutxitzen dute gaisoak, gizartean mugitzea gaitasuna galtzen dute eta beraz, behar bezala zabal-tzen ez badira, gaisotasun kronifikoa bihurtzeko arriskua dago. Horregatik, gizarte-teratzeko ahalegina egin behar da.

Guk hobekuntza handi nabaritu dugu tratatu diren kasu askotan, beren bizitza kalitatea nabarmen hobetzen da eta horretarako integrazio laborala, formazioa eta informazioa bultzatzea eta beharrezko laguntza eskaintzea ezinbestekoa da. **B**



# Elurra, euria, hotza eta jende gutxi kalean, Aste Santuko oporretan

## Erramu Zapatuko feriak ikusmin haundia sortu zuen

**Euria, txingorra, elurra... sekulako hotza! Aste Santuan herrian geratu direnek eguraldi kaskarrari nola edo hala aurre egin behar izan diote. Kalean oso jende gutxi ibili da, etxean sutondotan egoteko moduko giroa egin baitu.**

Halere, izan dira kanpotik Bergara bisitatzera animatu direnak. Turismo Bulegoa hilaren 6an zabaldu zuten eta domekara arte izango da zabalik. Martitzenera arte 149 kontsulta jaso ziren bertan, gehienak Eguen Santutik domekara bitartean. Astelehen goizean ez zen bulegoa zabaldu, elurteagatik. Turista gehienak, ohi den moduan, katalanak, madrildarrak eta Euskal Herritik bertatik etorritakoak izan dira; baita frantziarrak eta daniarrak ere.

### Egino baserrian sutea

Eguakitz Santu egunean Egino baserriak su hartu zuen eta Zubillagako suhiltzaileak etorri behar izan ziren berau amatatzera. Sutea baserriaren lehenengo solairuan, atzealdeko teilatuan, hasi ei zen gaueko 10ak aldera eta bi kamioi ekarri zituzten sua itzaltzeko. Suhiltzaileak gauerdia arte ibili ziren lanean, batez ere, bertan pilatutako belarra sakabanatu eta bustitzen. Egino baserrian ez da inor bizi eta bertako ikuilua



Taloea eta txorizoa egiten: Erramu Zapatuko ohiko irudietako bat.

belarra biltzeko erabili izan dute azken urteetan. Suhiltzaileak domekan berriz ere hurbildu ziren baserrira, teiltuko egur bati kea zeriola ohartarazi zirenean.

Bestalde, zapatu gauean ezezagun batzuek su eman zieten Irala eta Ramon Maria Lili kaleetako paper kontenedoreei eta suhiltzaileak aritu ziren sua amatatzen. Udaltzainek emandako datuen arabera, bestalde, Gorkako kantina zaharraren inguruan arbola batzuk moztu

zituzten aizkorarekin ezezagun batzuek.

### Jende asko eta giro ona Erramu Zapatuko ferian

Aste Santuaren atarian, sekula baino jende gehiago ibili zen Erramu Zapatuko ferian. Eta jendearen artean, karteristak ere ibili ei ziren: udaltzainek emandako datuen arabera, dozena erdi inguru kartera lapurtu zituzten. Bestalde, adituen esanetan aurten erakutsi den

ganadua bestetan baino itxura hobekoa izan da.

Feria gunean Presoak Euskal Herrira taldeak firma bilketa egin zuen. Hainbat alderdi politiko, sindikatu, elkarte eta taldetako ordezkariak izan ziren sinadurak biltzeko kalean jarritako mahaietan.


### 21 txorimalo

Erramu Zapatuko aurtengo edizioan, 21 txorimalo aurkeztu ziren. 14 urtetik beherakoan artean, 15 txorimalo izan ziren lehian eta argazkian agertzen den Iker Etxabarriren taldeak irabazi zuen; bigarren, Oier Aldairen taldekoak izan genituen eta 3. saria Irati Lamarianoren taldearentzat izan zen. Saritutako guztiak patinatzera joango dira Gasteizera.

14 urtetik 60 urtera bitartekoan artean, AEK-ko guraso taldeak eskuratu zuen 15.000 pezetako saria eta Agurtzane Elortzak bigarrena (10.000 pezeta). Azkenik, 60 urtetik gorakoan artean, txorimalo bakarra aurkeztu zen eta San Joxepe elkarteak eraman zuten 15.000 pezetako saria.

Bestalde, esaldi onenaren saria AEK-ko guraso taldearentzat izan zen "Egune-roko lanarekin lortuko dot" zioen esaldiarekin. B

**Eguraldiak lagundu ez badu ere, 149 kontsulta jaso dira Turismo Bulegoan; atzerritik ere etorri dira herria bisitatzera**



Okupatu duten etxea barrutik ez dago oso egoera onean. Gazteak lan batzuk egiten ibili dira egun hauetan.

## Santa Ana ermita ondoko etxea okupatu du gazte talde batek

### Udal langileak leihoak ixten ibili dira astean zehar

**Herriko gazte** talde batek Santa Anako ermita ondoko etxea okupatu zuen orain dela hilabete inguru. Bertan biltzeko eta euren jarduerak antolatzeko tokirik ez dutela eta, okupatu dute etxea. "Bost urte dira Gaztetxea itxi zutela. Bada-kigu zaila dela etxea konpondu eta bertan Gaztetxe bat jartzea, baina protesta moduan, lokal bat aldarrikatzeko, okupatu dugu" esan digute gazteek.

Etxeak hiru solairu ditu eta kanpotik nahiko itxura onean badago ere, barrutik oso egoera kaskarrean dago (toki batzuetan, sapaia behera bota dute); halere, egurrezko egitura egoera onean ei dago. Joan zen astetik, bestalde, etxeko leiho eta atea ixten jardun dute udal langileek eta udaltzainak eta ertzainak ere hurbildu izan dira bertara gazteei etxean ez sartzeko eskatzeko.

Gazteak alkatearekin bildu dira aste honetan: "alkateak herrian beste elkarte eta talde batzuk badaudela eta ea ijitoei geure etxean sartzen lagako geniekeen esan zigun. Baina ez zigun kasu haundiegirik egin eta argi geratu zen ez duela arazoa konpondu nahi" esan digute. Gazteek diote, beste lokal bat edukiko balute ez litzatekeela etxe horretan egongo. Etxea Murua Balzola Fundazioarena da. B


## Jubilatuen irteera Guggenheimerara

**San Joxepe** jubilatuen elkarteak Guggenheim ikustera Bilbon egun guztirako irteera antolatu du apirilaren 25erako. Irteera goizeko 10etarako iragarrita dago eta 13:00etan museora bisita gidatua egingo da. Ondoren bazkaria izango da eta arratsalde parte libre izango dute Bilbon. Prezioa: 3.350 pezeta eta izen-emateak jubilatuen egoitzan lehenbailehen.

Bestalde, La Perla bainuetxera joateko autobusa antolatu du San Joxepek maiatzaren 11, 13, 15, 18, 20 eta 22 egunetarako. Prezioa 12.000 pezetakoa da. B

## Gorlako Auto Igoera jokatuko da uda aurretik

**Noiz jokatuko** den zehazteke badago ere, Gorlako VIII. Auto Igoera jokatuko da aurtengo Azkenengo aldiz 1993 urtean antolatu zen. Orduan, kotxe igoerarako Espainiako Txapelketarako puntuagarria izan zen eta Aitor Zabaletak irabazi zuen igoera. B



Irizar 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**AGIRREBEÑA**

oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria

Urteaga 5 ☎ 76 18 29

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

# Bukatu dituzte San Martin ikastetxearen atzealdeko lanak

## Bideberrin eta Usondon ere asfaltu berria bota dute

**San Martin** ikastetxearen atzealdean egin dituzten txukuntze lanak Aste Santuaren aurretik inauguratu zituen Victoriano Gallastegi alkateak. Estolderia eta argiteria konpondu, farolak jarri eta espaloia egin dira. Bestalde, asfaltua bota da Ibaiondo amaieran, tunel azpian, hasi eta San Martin ikastetxearen atzealdean eta Agorrosingo baserrira doan kaminoan. 37 auto aparkatzeko lain toki egokitu da. Bestalde, erre kara ematen duen lursailean lorategitxo bat egin dute. 7 milioi pezeta inguru gastatu dira lanetan.



Udaletxe atzealdean adokina konpontzeko lanetan dihardute martitzenetik.

### Bideberri eta Usondo

Horretaz gain, Bideberri eta Usondon asfaltua botatzen aritu dira aste honetan eta Ramon Maria Lili kalea txukundu eta asfaltua bota zuten zoruan orain dela bi aste. Bideberri argiteria ere jarri da. Lan hauek guztiak amaitu eta gero, Zabalotegi atzealdean hasiko dira obrak. Udal Euskaltegitik Mizpirualde egoitzara artekote bidea zabaldu eta asfaltua botako dute, farola berriak ere jarriko dituzte.

Kontu hauekin jarraituz, esan dezagun, Iraburu, Aranerrika, Bolu eta Ibarra kaleak egoera kaskarrean daudela onartu dutela udal agintariak eta gobernu taldearen asmoa kale horiek lehenbailehen konpontzea dela. Aurtengo udal aurrekontuetan obra horiek egin ahal izateko dirurik aurreikusituz ez bada ere, aurtengo konpontzeko ahalegiak egingo dituztela adierazi dute agintariak.

Bukatzeko, esan dezagun, martitzenean ekin zieten udaletxe atzealdean adokina konpontzeko lanei. Udaletxearen birgaitze lanak egin zituen eta lehen ere toki berean adokina jarri zuen enpresa berak, Amnabarrek, egingo ditu obrak eta 15 bat egun behar izango ditu lanak egiteko. Ondoren, beste pare bat astez itxita izango da kalea zorua ondo asentatu dadin. Jaietarako prest izango da. B

## Euskadiko Itzulia antolatzen jardun zutenei mila esker Lokatza taldeak

**Hilaren 7an**, Euskadiko Itzuliaren bigarren etapa Bergaratik pasatu zenean, antolaketa aritu zirenei eskerrak eman nahi dizkie Lokatza Ziklismo Elkarteak. Ertzainak eta udaltzainak ez ezik, beste hainbat boluntario aritu zen trafikoa zuzentzen eta beste hainbat lanetan. Horiei guztiak eskerrak eman nahi dizkiete Lokatzakoek. Txirrindulariak ikusteko herritar ugari bildu zen kamino ertzean. B

## Odol emaleen eguna hurrengo zapatuan Bergaran

**Gipuzkoako** Odol Emaleen Elkarteak odol emaleen eguna ospatu eta XXXIII. Batzar Nagusia egingo du Bergaran. Hori dela eta, Bergarako Odol Emaleen Elkarteak hainbat ekitaldi prestatu dituzte egun horretarako. Labegaraie-ta kiroldegian izango den bazkaria joan nahi dutenek izena eman behar dute datorren astelehena baino lehen. B

### ZUBIAURRE aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako ateak.
- Neurria egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guzietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara. Tf. 76 15 14 / 35 73

### MUJIKA Jantzidenda

Barrenkalea 1 Tf.: 76 29 91

### ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 76 53 12

### Kizkur

Ileapaindegia Solariuma

Bolu 51 Tf. 76 50 32

# Berrigara

319 zenbakia.  
1998ko apirilaren 17a.

**Errotalde Jauregia, 20570 Bergara**  
**Telefona: 76 03 97. Faxa: 76 29 77**  
**E-mail: berrigar@sendanet.es**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Kristina Romero.  
**Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberebizbar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bitor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia:  
Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

## gutunak

**Iritzi, protesta edo desioren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

### UDAL DIRU BILTZAILEAK

Ez da batere atsegina inor salatzea eta are gutxia-go koldartzat salatzea. Haa-tik, orain arte ez dut adorerik izan salaketa hau plazaratzeko, salatua koldarra izan bada ere, pena pixkat ematen baitit. Penak, hala ere, ez dio koldarrari ausarta izaten lagunduko, beharbada koldar honek ez du sekula ikasiko adorea zer den, baina saiatzea bergarar guztion eginbeharra iruditzen zait. Bai, bergarar guztiona iruditzen zait eginbeharra, udaltzainak bergarar guztiontzat baitaude, eta Harane Errekan koldarrak badira udaltzainok, beste Bergarako ezein lekutan koldarrak izanen direla pentsatzeak badu bere logika.

Logikaren ildotik jarraiki, Harane Erreka eta inguruetako kotxedunon kopurua bertan dauden aparkalekuen kopurua baino dexente handiagoa, beraz... Ekuazioari gehituz gero etxebizitza berriak eraiki

berri dituztela, aparkaleku falta are nabarmenagoa da. Nola?... Bai, badakit garajeak daudela, baina horiek ekuaziotik kanpo geratuta ere arestiko ekuazioaren emaitzak berean darrai.

Ah bai... egia. Badakit hor goian lau bat aparkaleku egin berri dituzuela, baina horiek ekuaziotik kanpo geratuta ere, arestiko ekuazioaren emaitzak berean darrai.

Batzuok, ez baitut uste bakarra naizenik, ostiral gauean iritsi eta aparkalekurik ez dagoela ikusita, antzina aparkaleku ziren tokietan lagatzen dugu kotxea, hurrengo egunean goizean goiz langile gixajo batek libre utzitako tokian lagatzenko. Baina, hara non herri honetako udaltzainak ortziaren iluntasunak ematen duen gerizpean, goizeko zazpiak eta erdi ingururako iada pasa diren diru bilketan. Noski, udaletxeak aurre egin behar baitie egin berri dituen gastuei, eta arazo ekonomikoak daudenean

enpresa seguruetan inbertitzea da onena. Ikuspegi horretatik Harane Erreka ingurua enpresa segurua udalletxearentzat eta ortziaren iluntasunaren gerria udaltzainarentzat. Gero ez dazu logikaz ezer gutxi kizula.

Joxe Mari Gabilona  
N.A.N.: 15.394.35

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Zahartzarora heldutakoan, prest egongo zinateke zaharren egoitzaren batera joateko?



**Juan Ansotegi**

Orain horri erantzutea oso zaila da; momentua heldutakoan planteatu beharreko gauza da. Tokatzen denean, orduan ikusiko genuke.



**Karmen Zabaleta**

Nik zaharren egoitza batean lan egiten dut; ahal izanez gero, nahigo nuke etxean egotea, baina ez dakizu zein osasun egoeratan helduko zaren zahartzarora.




**Jose Larrañaga**

Onena da etxean, familiarekin geratzea, baina familiak ezin bazaitu ondo atendiytu erresidentziara joan behar... Norberaren osasun egoerak zerikusi handia dauka.



**Arantxa San Martin**

Beste erremediorik ez balego... Egia esan, nahiago nuke etxean egotea. Etxearen egoera ere aztertzea izango litzateke eta norberaren osasun egoera ere bai.



**Juan Zabaleta**

Bai, joango nintzateke, arazorik gabe. Nik uste dut aukera ona dela han egotea eta familiak ez dauka egunero 24 orduz zuri begira egon beharrik.



**Isabel Menor**

Nik uste dut baietz. Gosasun aldetik gaizki baldin bazaude, uste dut zure familiarendako aukerarik onena hori dela. Hori bai bisitatxoak jasoz, eh?

**Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Jon Mujikak** mezu bat laga zigun aurreko astean Berrigarako kontestadorean. Jonen arabera, herrian egiten ari diren hainbat obren ondorioz, gero eta aparkaleku gutxiago dago eta arazoa konpontzea erreza ez bada ere, hainbat neurri har daitezkeela dio. Esaterako, berak San Pedroko burrerian apartatu ohi du ahal duenean eta, itxura denez, aspalditik Seat Panda (SS-8266-S) kotxe bat abandonatuta dago bertan, beste batek aprobetxatu zezakeen plaza okupatuz. Jonen ustez, kasu gehiago ere egon litezke herrian eta, beraz, Udaltzaingoari beharrezko neurriak har ditzan eskatu nahi dio.

■ ikuspuntua: **maria urzelai**

### Bidaiatu ala ihes egin?

Aurtengo Aste Santuan herria utzi eta kostaldera, mendira edota urrutiko lurraldeetara alde egin dutenen kopurua inoiz baino altuagoa izan omen da. Telebistako albistegietan esan duten bezala, Euskal Herriko nekazal turismo etxeak ehuneko ehunean zeuden orain dela aspaldi eta Salou eta inguruko parajeetan egoera antzerakoa izango zen ziurrenik.

Datu hauek argi ematen digute gaur egun gure artean areagotzen ari den feno-



meno baten berri. Plazer eta relax bidaiak egitearena edo ezezagunak diren lurraldeak deskubritzearena gauza berria ez dela egia da. Baina aspaldian opor motz hauek igarotzeko etxetik aldentzen den mordoxka baten asmoa ez da turismoa egitea, egunerokotasunera loturik mantentzen duen hari sendoa moztea baizik. Beste modu batean esanda: ihes egitea, deskonektatzea, buruari une-

an uneko arazoez ahazteko beta ematea.

Jendeak bankuko maileguak, lantegiko erlojuak eta alabaren jaunartzearen pres-takizun aspergarriak albo batera utzi nahi ditu. Non, noiz eta nola galdegaiek ez daukate garrantziarik. Zergatia da esanguratsuen: estresa, monotonia, gure gizartearen abiadura zoroa...

Beharbada bizitza arruntaren hatzaparretatik ihes egin baino, honi lasaitasunez aurre egiten ikasi beharko genuke guztiok, alde egitea aise erraza baita; errealiteratu bueltatzea, berriz, abentura guztietatik gorrotagarriena. **B**

■ asteko menua

## Rapea amerikar erara



MARIA LUISA GEZALAGA  
Leku-Berri merenderoko sukaldaria

### OSAGIAK (6 lagunentzat)

- Kilo eta erdi rape garbi
- 2 kipula
- Pote bat tomate frijitu
- 4 piper berde
- Azenario bat
- 100 gramo ganba zuritu
- 100 gramo gurin
- Baso bat ardo zuri
- Baso bat koñak
- Pipermin pixkat

### PRESTAKETA

- Zartagin batean olio eta gurin pixkat berotzu ondoren, rapea gorritzen ipini.
- Gorritu bitartean, beste zartagin batean kipulak, azenarioak eta piperminak potxatzen jarri. Ardoa eta koñaka erantsi eta hauekin batera ganbak.
- Ondo potxatutakoan saltsa gutzia txinotik pasatu.
- Rapea saltsan ipini eta, berriz ere koñak pixkat bota.
- Bukatzeko, gutzia sutan jarri eta denboratxo batez egiten laga. Amaieran, perexil pixkat bota.

■ adituen esanetan

## Udaberrirako pasealekua

IÑAKI IRIZAR, *biologoa*

San Blasetik Toki-Ederreraino doan trenbidea, natura aldetik, erakargarria dugu. Naturaren hainbat elementu topa ditzakegu bertan. Landaretzari dagokionez, zuhaitz eta zuhamuxka ugari dira tarte horretan: haritzak, gartzainondoak, lizarrak, elorriak, basaranak, astigarrak, gerezindoak, erramuak, atxaparrak, basaerramuak, txorbeltzak etabar. Sasoi honetan, hostoak eta lorak botatzean, espezie horiek ezagutzeko aukera ona daukagu.

Fauna ere aipagarria da, hegazti ugari ikus daitezkeelako: zozoak, birigarroak, kaskabeltzak, txinboak, txio

arrunta... San Blas aldean enarak ikus- teko aukera ere dago. Bestalde, trenbide bazterrean sortu diren potzuak anfibioentzako bizileku aproposak bilakatu dira, hala nola uhandreak edota igelentzat. Animalia hauen habitat motak desagertzean, hemen potzu politak sortu dira. Anfibio hauek orain ugaltze garaian dira. Narraztiak ere topatu daitezke, tartean ziraunak edota sugereren bat (onena pakean uztea). Hegaztiak, berriz, udaberrian kantuan edota kabiak egiten izaten dira. Beraz, badago udaberriak landaretza eta faunari eragiten diona gertutik ezagutzeko aukera. B

■ bergarako gordailutia

## JAI BEREZIAK

Imanol Sorondo

**K**lemente XIII.a Aita Santuak, Agirretar Martin Donearen otoitz ofizioaren eta mezaren baimena eman zituela eta 1764 urtean, otsailan eta irailean, festa bereziak prestatu ziren. Gainera, Peñafloredako konteak Herriko Lagunen Erreal Eskartearen sortzeko asmoa luzatu zuen. Hona iraileko jaien laburpena.

**Irailak 10:** Santuaren baselizan (Mintegin) kantaldia eta egun honetarako konposatu zuten salbea. Ondoren, suak basaelizako enparantzian. Kale guztiak argiz beteak, San Pedroko dorreak bereziki, atentzioa deitzen zuela. Musikaldira eta dantza Irizarreneko zelaian zezen plaza egin zen eta bertan gure herriko dantzak dantzatu zituzten, danborrekin, argi-suziak piztuta zeudela. Dantzatzen zeuden bitartean eta ustekabearen, adarboildun basatar idiak botatzen zituzten plazara. Hamaitan, guztiak etxera.

**Irailak 11:** 9:30etan Meza Nagusia. Prozesioa 3retan: zuhaitz bat ipini zuten kukaina baten modura eta bertan nork harrapatuko ipiniak zeuden haragi, arrain, ogi, bildotsak eta zuhaitzaren adarretan bizirik zeuden eperrak, oilasko eta oiloak harrapatzerakoan ihes egiten zutela baina ez asko soka batekin lotuak zeudelako. Ardoa ematen zuen iturri bat ere ipini zuten bere haunditasunagatik, edatea zaila izan arren, eta jendea asko busti zen. Iluntzean, karreroza ederren desfilea enparantzaren ondoan, eta bertan antzerki moduko bat eskaini zen: "Bergara, santuaren jaioterria". Dantzak eta idiak, lehen bezala. Udaletxean, opera saioa: "El mariscal en su fragua". 11etan etxera.

**Irailak 12:** eguna argitzearekin Gaztela herriko hamar zezenen eratzierroa. Hamarretan zezenak. Opera: "El borracho burlado".

**Irailak 13:** goizean Nafarroako zezenak, arratsaldean Gaztela herrikoak. Gainerakoak, antzera.

**Irailak 14:** antzera. B



## Antonekin Azkoitian

Bergarako korrikalariak ez zuten hutsik egin joan zen martxoaren 29an jokaturako **Azkoitia-Azpeitia** lasterketan. Guztiek maila ona erakutsi zuten aipaturako maratoi erdian eta lasterketa atarian **Abel Anton** munduko maratoi txapel-dunarekin argazki bat ateratzeko aukera izan zuten. Antonek berak irabazi zuen proba eta herriko ordezkariak ere sasoi onean daudela erakutsi zuten. Zorionak!!

## Beteranoei omenaldia

**Sagarpe** elkartearen sorreraren **50. urteurrena** ospatzeko ekitaldien barruan, joan zen apirilaren 4an bizirik diren bazkide fundatzaileei omenaldia eskaini zitzaien. **Martin Guridik**, **Martxo Larrañagak**, **Bixente Garitanok** eta **Dionisio Bolibarrek** (bere semeetako batek jaso zuen saria) plaka oroigarria jaso zuten, **Xamatzekoek** dantzaturako aurrekuaren ostean.

Jarraian, **Aritzetak** hainbat kantu abestu zituen Sagarpen bertan. Ospakizunei amaiera emateko, hurrengo egunean, domekan, 70 bazkide inguru bildu ziren Antxonin izandako bazkarian. Zorionak!!



## Marrazkilari bikainak

**Mendi Astearen** barruan, **kirol marrazkien lehiaketara** aurkeztutako lan onenak saritu ziren. Bosgarren mailako ikasleen artean, **Irene Uretak** eraman zuen lehen saria; **Garazi Olabarriak** bigarrena eta, hirugarrena, **Pello Mujikarentzat** izan zen. Seigarren mailakoetan, **Pol Lopez de Subijana** izan zen irabazlea, **Saioa Martinezek** bigarren saria jaso zuen, **Leire Hernandezek** hirugarrena eta **Maialen Alkorkak** eta **Elisabet Condek** akzesit bana eskuratu zuten. Bestalde, Berrigarako lehiaketan **Txaro Garcia** izan zen sari-tua. Argazkian, sarituak Kirol Zerbitzua, **Pol-Pol Mendizale Taldea** eta **Jarduneko** ordezkariak.

## Euskaltegikoak sagardotegira

Joan zen eguakitzean **Bergarako Udal Euskaltegi-ko ikasleek** urteroko txangoa egin zuten sagardotegira. Aurten, iaz bezala, Tolosako Isastegi sagardotegira joan ziren. Afari ederra egin zuten eta **Itxaso eta Itxaro trikitilari** bergararrek alaitutako dantza eta bertso saio batzuen ostean, joandako 50etik gora lagunak atzera ere Bergararantz itzuli ziren. Batzuek nahikoa ez zutela eta, kalean gora eta behera ibili ziren, aspertu arte edo...



# MULTIOPTICAS



R.F.S. Nº 427/96

Zure eguzkitarako betaurrekoak  
MULTIOPTICASen erosi ezkerok, guri  
beste batzuk bidaltzen dizkigute.  
Guregatik zerbait egiten ari zara.

**SOLIDARIOS**



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari :  
• MULTIOPTICASen kreditu-txartela.  
Diru barik erosteko modurik errazena.  
• Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan  
atzeratzeko modua izango duzu, batere  
errekargu barik.



LORTU EZAZU  
MULTIOPTICAS-en  
«TRAVEL CLUB»  
PROGRAMAKO PUNTUAK

## MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16  
Tel. 943 76 15 75  
20570 BERGARA

Juan Carlos Guerra, 1  
Tel. 943 79 29 95  
20500 ARRASATE


J. M. Barandiaran Enp.  
Tel. 943 88 99 88  
20240 ORDIZIA

## MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2  
Tel. 943 20 05 22  
20600 EIBAR


## MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7  
Tel. 943 51 78 11  
20100 ERRETERIA




Artekalea 1, BERGARA. Tf. 76 72 00.

# Zabaldu berria!



Pintxoak  
Eguneko menua  
Italiar sukaldaritzza  
Pizzak

Etxera eramateko  
Pizza eta Lasagna!



Goizeko 9:30etatik zabalik



Edu Muruamendiaraz:

# “Dantzan gauza berriak egiten saiatzen naiz”



**Euskal Koreografo Berrien II. Erakusketa izango da gaur arratsaldeko 8etatik aurrera Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Hilaren 25ean Gasteizen eta maiatzaren 1ean Barakaldon ere ikusteko aukera izango da. Bertan erakutsiko diren zazpi koreografietatik bi bergararrenak dira; bata, Edu Muruamendiarazena eta Uxue Otaolarena, bestea. Edu Muruamendiarazek iazko edizioan ere hartu zuen parte “Aukeran” izeneko lanarekin. Oraingo honetan “Akilimarro” aurkeztuko du.**

Goiko argazkian, Edu Muruamendiaraz dantzaria. Iaz “Aukeran” izenburuko koreografia aurkeztu zuen eta gaur, eguakitzan, “Akilimarro” estreinatuko du Donostian.

**Z**elako koreografia da “Akilimarro”?

**Edu Muruamendiaraz:** Aurrekoarekin konparatuz, zeharo aldatu dugu gaia. “Aukeran” *West side story* moduko bat zela esango nuke eta honako honetan, berriz, akelarre bat landu dugu. Akilimarro akerrari ematen zaion izenetako bat da eta hori aukeratu dugu. Zortzi lagunek hartzen dugu parte; mutilok aker jantzita goaz (erdi gizaki, erdi animalia); neskek, berriz, naturako lau elementuena egiten dute, hau da, sua,

airea, lurra eta urarena. Pieza amaieran denak elkartzen gara eta akelarre batekin bukatzen dugu. Aurrekoa baino koreografia luzeagoa da; hura zazpi minutukoa zen eta honek 14 minutu dirau. Partaideei dagokienez, lehengo taldeari eutsi diogu: Iurre Aranburu, Aiert Beobide, Marijo Salsamendi, Eneko Dorronsoro, Cristina Ruiz, Gabriel Alonso, Eli Alberdi eta ni neu.

**G.** Koreografia sortzeko prozesua nolakoa izan da?

**E. M.** Oso zaila. Joan zen urtean



“Aukeran” koreografiarekin eta beste hainbat dantzarekin osatu genuen ikuskizunarekin dozena bat emanaldi eman genituen eta nahiko harrera ona izan genuenez, aurtengo deialdirako zerbait prestatu nahi genuen. Akelarrearen ideia bururatu zitzaigun eta hortxe hasi zen dena. Zailena musika aukeratzea izan da. Honetan ere Tomas San Miguelen “Lezao” diskan oinarritu gara; “Devociones” deituriko gaia agurra da eta, horretaz gain, Kepa Junkera eta Ibon Koteronen piezaxo bat eta Huts-hots txalapartarien doinuak erabili ditugu koreografia lantzeko, zuzendaria ni izan arren, talde-lana izan baita.

Bestalde, txalapartari garrantzi handia eman nahi genion eta guztion artean dantzak moldatzen joan gara eta prozesu luzea eta nekagarria izan da. Irail aldera hasi ginen eta urtarriletik hona astebukaera guztietan entsaiatu dugu. Partaideok toki ezberdinetan bizi eta proiektu diferenteetan murgilduta gaudenez, ez da batere erreza izan asetero elkartzeara. Esfortzu handia eskatu digu proiektuak.

**G.** Zein aurrekontu izan duzue?

**E. M.** Jaurlaritzako Kultura Sailak, aurkeztutako 22 piezetatik, zazpi aukuratu ditu eta proiektu bakoitzarentzat 300.000 pezeta inguru eman ditu. Kopuru horrekin moldatu behar izan gara eta esan behar da jende gehienak musutruk kolaboratu duela. Eskerrak eman behar dizkiegu laguntza eskaini

diguten guztiei. Ramon Garcia diseinatzailak, adibidez, izugarritzko lana egin du; Olatz Beobide aktorea eskematokian ondo mugitzeko laguntza eman digu; Anartz, bere anaia, argiztapenez arduratu da... Guztiok ilusio handia jarri dugu honetan.

**G.** Aukeratutako proiektuetatik dantza tradizionala jorratzen duen bakarra zuena da.

**E. M.** Taldeko gehienok dantza tradizionalan ibilitakoak gara eta erabiltzen ditugun pausuak, beraz, tradizionalak dira. Betiko pausu horiei dantza garaikidea eta dantza klasikoko pausu batzuk gehitu dizkiegu, nahasketa moduko bat, max-mix bat egin dugula esan daiteke. Horretarako, dantza garaikideko pare bat ikastarotan izan gara; gainera, nik sei hilabete daramatzat Mentxu Medelekin dantza klasikoa lantzen. Gure betiko dantzekin gauza berriak sortzea interesgarria iruditzen zait.

**G.** Eta zer dio dantza tradizionalera ohituta dagoen jendeak zuen koreografiak ikustean?

**E. M.** Denetik entzun nuen aurreko koreografiarekin. Hainbat jenderi ikaragarri gustatu zitzaion eta beste jende

batek, berriz, praka bakeroetan eta itxura harekin dantzan zer demontre egiten nuen galdetzen zidan. Baina, erre ustez, dantzak bilakaera bat izan behar du eta horrelako gauzak beharrezkoak dira, ikasitako gauzak beste koreostu batean erabiltzea aberasgarria da beti.

**G.** Dantzari dagokionez, estiloen arteko ezberdintasunak zelakoak dira?

**E. M.** Nik oraindik ez daukat teknika berriak beste dantza motarik egiten hasiteko. Erreza ematen du baina oso zaila da. Tradizionalan dantza guztiak moldatuta daude, arau batzuk jarraitu behar dituzu, dena askoz ere simetrikoa da. Dantza garaikidean, berriz, inoiz ere mugimendu onartzen da, askoz ere zabalagoa da eta gorputz espresioak izugarritzko garrantzia dauka. Klasikoan eta garaikidean oso teknikoak behar dira.

**G.** Hiru tokitan, behintzat, erakustaldia ziurtatuta duzue aurtengoa.

**E. M.** Gure asmoa ahal den tokietan gehienetan erakustea litzateke, baina oso zaila da. Joan zen urtean, ordubeteko programa moldatu behar izan genuen (bestela oso labur geratzen zela) eta emanaldi batzuk egitea lortu genuen. Oraingoan, beharbada, bi koreografia hauek programan sartu eta beste dantza batzuk gehitu beharko ditugu. Ez dakit zelako erantzuna izango dugun, baina gustatuko litzateke astebukaera guztietan aktuzioak izatea.

**G.** Dena den, koreografia hauetan aparte, dantza tradizionala hutsa egiten jarraitzen duzu.

**E. M.** Bai, ni gustora nago dantza tradizionalarekin beste mundu horretan sartzeko aukera ematen didalako. Dantza klasiko zein garaikidekoak, berriz, ez dira gurean sartzen. “Eskola” dantza taldean jarraitzen dut, baina txapelketetan parte hartzeari lagatzea eta baki nuen. Euskadiko aurreko dantza solteko txapelketa hainbat aldiz lortu nuen eta ez neukan jarraitzeko motibaziorik.

**G.** Behin baino gehiagotan dantza tradizionalaren egoera salatu duzu.

**“Taldeko gehienok dantza tradizionalan ibilitakoak gara eta koreografia berri honetan, betiko pausu horiei, dantza garaikidea eta klasikoko pausu batzuk gehitu dizkiegu”**

## Uxue Otaolak "Sokatira" koreografia aurkeztuko du

Gaur Donostian estreinatuko den Euskal Koreografo Berrien II. Erakusketan Uxue Otaola bergararrak ere hartuko du parte. Uxuek lau urte eman ditu Bartzelonako Antzerki Institutuan dantza garaikidea ikasten eta gaur egun "Proyecto gallina" eta "Alexis Eupierre" konpainietan ari da, Bartzelonan bertan. Gaur "Sokatira" izeneko koreografia aurkeztuko du Victoria Eugenia antzokian. Berarekin batera beste lau neska izango dira eskenatokian eta Uxuek azaldu digunez, "emakumei buruzko koreografia da eta hiru belaunaldi ezberdinetako emakumeak agertzen dira. Eszenografiarako izarak eta balde batzuk erabiliko ditugu; emakume bakoitzak bizi izan duen egoera ezberdina islatu nahi izan dugu". Musika orijinala erabiliko dute, Enric Gili-k eta Txabi Caudet-ek konposatutakoa. Uxuek irailean ekin

zian "Sokatira" prestatzeari eta bere hitzetan, "ez da bate-re erreza izan, azken batean beste proiektu batzuetan ere sartuta zaudelako eta entsaiatzeko denbora aurkitzea zaila izaten delako". Uxueren ustez, Katalunian Euskal Herrian baino aukera gehiago dago dantza garaikideko ikuskizunei dagokienez: "azken batean eskola ofizial bakarra han dago eta euskaldun asko dago han dantza ikasten. Hala ere, badirudi Euskal Herrian pixkanaka-pixkanaka hasi direla gauzak egiten, Artelekun adibidez". Euskal Herrian egingo duten jiraren ondoren, Huescan ere izango dira "Sokatira" erakusten: "pieza motza denez, nekeza da mugitzea, baina beste dantza batzuekin ikuskizun bat osatuko dugu ziurrenik". Bien bitartean, estreinu aurreko nerbioak ezinbestekoak direla diosku Uxuek.

**E. M.** Ez dut uste behar bezala baloratzen denik, askotan beste ikuskizun batzuen osagarri eramaten gaituzte. Ea lortzen dugun behingoz gu artistak izatea eta beste batzuk osagarri etortzea.

**G.** Zertan ari zara orain?

**E. M.** Elik eta biok Tomas San Miguelen diska berrian hartuko dugu parte, zuzeneko emanaldietarako zerbait prestatzen ari gara eta orain dela gutxi Araba Euskaraz-eko bideoan ere agertuko naiz. Horretaz gain, "Eskola" dantza taldean nabil eta ahal dudan guztietan dantza ikuskizun berriak ikusten saiatzen naiz. Hori da nire asmoa, hor

### **"Akilimarro" gertatu ahal izateko taldekideak dantza garaikideko pare bat ikastarotan izan gara eta nik, berriz, sei hilabete daramatzat dantza klasikoa lantzen"**

segi eta ahal den neurrian gauza berriak egin.

**G.** Bukatzeko, zer sentitzen da estreinu baten atarian?

**E. M.** Nerbio ikaragarriak. Martitzenean "Surra"rekin berbetan izan nintzen eta berak galdetzen zidan hainbeste urtetan dantzan jardun ondoren nola

zitekeen oraindik nerbioak izatea. Baina nik uste dut nerbioak izatea ona dela, ilusio handia duzula esan nahi du horrek. Ni, berez, urduria naiz eta ez dakit ikusleek nola hartuko gaituzten. Dena den, oso antzoki inportanteetan izango gara aurrean eta jende gehiago etorriko dela espero dugu. **B**



Argazkian, Eli Alberdi eta Edu Muruamendiarez "Akilimarro"n erabiliko dituzten jantziekin. Urtarriletik hona astebukaera guztietan entsaiuak izan dituzte.



# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### ZAPATUAN BARRUAN

18:00: Uve Bikoitza-Matxakategi  
19:00: Shaktale-Bildurbarek Opel/Lam  
20:00: A Ze Flaxa Etxagi-Etxagi

**Shaktale**  
**A Ze Flaxa**  
**Bildurbarek**

### ZAPATUAN KANPOAN

17:00: FAC-MRW

**Uve Bikoitza**

### DOMEKAN BARRUAN

09:30: Artusamak-Bar Canalejas  
16:00: Agiñaspil-Autoberezi  
17:00: Amozkibar-Usoa  
18:00: Errotagain-Bayer  
19:00: Agirrebeña-Mongatxurak  
20:00: Pagomendi-Manitou

**SLO**  
**Amozkibar**  
**Autoberezi**  
**Usoa**  
**Errotagain**  
**Mongatxurak**

### DOMEKAN KANPOAN

09:30: Txipiron-Bar Ganbara  
10:30: Azpeitxi Jatetxea-Indargorri  
11:30: Jakina Patxaran Team-SLO  
16:00: Jauja OH Zerezos-Guadalest  
17:00: Ezinleike-Ufala  
18:00: La Juve-Etengabe

**Azpeitxi**  
**Txipiron**  
**Indargorri**  
**Ezinleike**  
**Guadalest**  
**Ufala**

## argi!

### Final laurdenak arte ez da prorrogarik jokatuko

Bai kopan, bai Play-Offetan, final laurdenak arte, partiduetan berdinketak izanez gero, bosna penalti jaurtiko dituzte taldeek eta ez da prorrogarik jokatuko. Beraz, arauzko denbora jokatu eta gero, partidua berdinketarekin amaituz gero, zuzenean penalti jaurtiketara pasatuko da. Azkenengo jardunaldian kanporaketa bat baino gehiago erabaki zen penalti jaurtiketaren bitartez.

## jokoz kanpo



**Alberto Gonzalez**  
**MANITOU**

**G.** Zer moduz amaitu duzue liga txapelketako lehen fasea?

**E.** Ligan bigarren mailako lehen postuan gelditu gara.

**G.** Zer nolako maila izan da zure multzoan?

**E.** Kaskar samarra guretzat.

**G.** Kopan zer bait egiteko aukerarik baduzue?

**E.** Errez irabazi ditugu partiduak.

**G.** Kopan zer bait egiteko aukerarik baduzue?

**E.** Bai, zorte piska batekin kopa irabaziko dugula uste dut.

**G.** Txapelketako talderik onena zein izan da?

**E.** Gu geu, Manitou.

**G.** Eta jokalaririk onena?

**E.** Aurten ez du jokatu baina nire ustetan, Iban Aiestaran.

Jokatu dutenen artean, Errotagaineko Aitor Anton.

**G.** Zein da zure taldearen gauzarik onena?

**E.** Erasoan oso ondo gabiltza.

**G.** Zein postutan jokatzen duzu?

**E.** Atezain.

**G.** Ligako talderik onena?

**E.** Salamanca.

**G.** Mundiala zeinek irabaziko du?

**E.** Espainiak uste dut.


**G.** Ligako jokalaririk onena?

**E.** Luis Enrike.

**G.** Real Uefarako sailkatuko da?

**E.** Real bai, baina Athletic ez.

## gora eta behera



### Shaktale

Bigarren mailako Shaktale taldeak lehen mailako Jauja OH Zerezos kanpoan laga du. Penalti jaurkiketetan izan arren, txapelketa irabazteko Play Offetan aurrera egin dute Shaktale taldekoek.



### Manitou

Manitou taldea txapelketako talderik onena bezala aurkeztu dute askok. Halere, lehen mailako talde baten aurka jokatu behar izan duen lehenengo aldian, txapelketatik kanpo geratu da. Azpeitxi Jatetxeak irabazi egin zion, penaltietan izan bazen ere.

## emaitzak

### KOPA TXAPELKETA

Bildurbarek Opel/Lam-Amiltox	14
Ortzi-Bayer	54
FAC-Aldoka Maldoka	71
Ezinleike-Eri Sirimiri	74
La Juve-Igandekoak	51
Komando Piperrak-Bar Ganbara	84
La Peña DML-MRW	24
Polideportivo Taberna-Agiñaspil	1-10
Moskis-Agirrebeña Jatetxea	1-5
Etengabe-Gazteak	61

### PLAY-OFFAK

Txipiron-Mongatxurak	84
A Ze Flaxa Etxagi-Usoa	83
Jauja OH Zerezos-Shaktale	31
Etxagi-Artusamak	43
Bar Canalejas-Autoberezi	64
Errotagain-Guadalest	74
Azpeitxi Jatetxea-Manitou	14
Ganbara Ari Ari-Jakina Patxaran Team	1-17
Pagomendi-Uve Bikoitza	73

**Larkano**  
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.  
Tf. 76 25 03

**Mugertza harategia**

GORA MAHONEROAK!  
Mugertza harategiak, astero, 2 txuleta ematen dizkio BKEko futbol talde nagusiko golegile nagusiarri

Mugertza 12, Bergara. Tf. 76 13 82.

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazoltxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 76 39 53

# Euskararen erabilera altua kirol monitore eta haurren artean

## Eskola Kirolean monitore gutxik dauka titulazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak herrialdeko Eskola Kiroleko hizkuntz diagnosiaren emaitzak plazaratu ditu. Gipuzkoan Eskola Kirolean dabilzan monitoreen hizkuntz gaitasuna eta kirol titulazioa eta haurren ikasteredua eta euskara erabilera neurtu ditu Siadeko Ikerketa Elkarteak.

Azterketa iazko udan egin zen eta datu bilketa ikastetxe bakoitzeko eta udaletako kirol zerbitzueta-ko koordinatzaileen bitartez egin da. Gipuzkoako 186 ikastetxetan banatutako 2.370 kirol taldetako datuak jaso dira. Talde horietan biltzen den haur kopurua 29.412 inguru izatera iristen da.

Haurren hizkuntz ereduari dagokionez, Gipuzkoa osoa hartuz gero, %62 D ereduan ikasten dabil, %18 B ereduan, %11 D eta B eruedetan eta %4 A ereduan. Bergarako kasuan, ostera, D ereduan dabilzanak %92 dira, B ereduan %4,8, D eta B eruedetan %2,4 eta A eredukorik ez dago. Bestalde, euskararen erabilerari dagokionez, beti euskara erabiltzen duten haurren portzentaia %47koa da Gipuzkoa osoan; beti euskara eta euskara gehiago erabiltzen duten haurrak batuz gero, hirutik biko proportziora iristen gara



Eskola kirolean era askotako kirolak lantzen dituzte gaztetxoek.

ARTXIBOA

(%66). Bergaran, berriz, %83,3k beti euskara erabiltzen du; %7,1ek euskara gehiago, %4,8k erdara gehiago eta %4,8k beti erdara. Bergaran, pilota da monitoreek eta haurrek euskara gehien erabiltzen duten kirola (%90,3); ondoren, mendia (78,7), multikirola (%73) eta eskubaloia (%61) datoz. Gutxien gimnasia (%53) eta futbolearen (%53,8) erabiltzen dute euskara.

Eskola Kiroleko jardueretan, monitore eta haurren arteko harremanetan, taldeen %62k euskara erabiltzen du Gipuzkoa osoa hartuz gero; Bergaran, %85,7k.

Bestalde, Eskola Kiroleko monitoreen kirol titulazioari dagokionez, Gipuzkoa osoan %44k ez dauka inolako titulaziorik; %18k oinarrizko titulazioa dauka eta %8k IVEFeko titulua dauka edo kirol monitore birziklatuak dira.

### Monitoreen kirol titulazioa eta euskara maila

Iñaki Ugarteburu Udala Kirol Zerbitzuko teknikariak esan digunez, kirol monitoreek zenbat eta prestakuntza edo titulazio maila handiago izan, orduan eta eus-

kara maila hobea dute. Ugartebururen esanetan, euskararen erabilera eta monitoreen prestakuntzaren aldetik, Deba Garaian nahiko ondo dabilza, zentzu horretan aurrerapen handiak eman baitira azken urteetan. Halere, monitore laguntzaile asko dago formazio txikia dutenak.

Hauk, herriko kirol taldeetako jokalaria edota Eskola Kirolean dabilzan haurren gurasoak izaten dira sarritan. "Kasu gutxi dira, baina aurrerantzean arlo horretan lan egin beharko dugu" esan digu Iñaki Ugarteburuk. B

**Euskara erabileraren eta monitoreen prestakuntzaren aldetik asko aurreratu da azken aldirian Eskola Kirolean**

## Futbola



BKEko futbol talde nagusiak preferente maila berreskuratu eta aste honetan atsedendaldia izango du. Zorionak! Beste taldeek, oraindik badute zer egin. Lehen mailako jubenilak, esaterako, bosgarren postuan daude eta partidu guztiak irabazi beharko lituzkete promozioa jokatu ahal izateko.

Bigarren mailakoak oso ondo ari dira eta gelditzen diren partiduak irabaziz gero, mailaz igoko lukete. 2. mailako kadeteak ere ondo dabilta. Azken partiduan hamairu gol sartu zituzten Sanpedrotarra taldeari. Bestalde, infantilek, 5. postuari eustea espero dute eta neskak, oraindik ere zorte beharrean daude, azken partidua ere galdu egin baituzten Zarautzen.

## Eskubaloia



Aste Santuko atsedendaldia ondoan, BKEko kadete mailako neska-mutiek Gipuzkoako Kopari aurre egin beharko diote. Bi taldeak bigarren postuan sailkatu dira Federazio Kopan. Neskek, Euskadiko txapelketa izan den Aloña taldearen aurka izango dute lehen partidua. Urtebete zaharragoak direla kontutan hartu behar da, Bergarako neskak Gipuzkoako mailan aritu dira; Aloña-koak, ostera Euskadi mailan.

Mutiek, Arrasate izango dute aurkari. Gazte mailakoek, Ligako azken partidua jokatu dute. Hauek seigarren postuan sailkatu dira. Azken partiduak ez du sailkapenean eraginik izango, galdu nahiz irabazi, seigarren postua zitura da eta.

## Saskibaloia



Bolsos Bergara BKEko saskibaloitza Aste Santua baino lehen jokaturiko partidua galdu egin zuen eta, ondorioz, mailaz igotzeko aukerak gutxitu egin dira. Dena dela, hiru partiduak irabaziz gero, oraindik badute itxaropenik.

Alex Familiarren mutilak, berriz, lehen postuan daude beste lau talderekin batera. Geratzen diren lau partiduak irabazten badituzte, lehen postuan sailkatuko dira. Dena dela, horietako bat ez da batere erreza izango, puntutan berdinduta dauden talde batekin jokatu beharko baitute. Kadete mutilak, bestalde, irabazi egin zioten lehen postuan sailkatuta dagoen taldeari. Neskak azkenik, denboraldi eskasa egin dute aurten.

## ENEKO ITURROSPE / Piraguista

### "Teknika ona izatea garrantzitsua da"

**Eneko Iturrospe, 14 urteko bergararra, kadete mailako txapelketa ordea izan zen Bidasoako uretan jokatu zen Gipuzkoako Piraguismo Txapelketan.**

**G.** Zer iruditu zitzaizun txapelketa?

**E.** Nahiko ondo aritu nintzen. Lehenengoak 20 segundu atera zituzkidan, baina urtebete handiagoa dela ere kontutan hartu behar da. Bestalde, partehartzaile batek huts egin zuen eta hark parte hartuz gero hirugarren postuan geldituko nintzela uste dut.

**G.** Zenbat txapelketatan izan zara?

**E.** Infantiletan ere Bidasoan izan nintzen eta astebukaera

honetan Espainiako kopa izango dugu Leridan, Pons-en hain zuzen. Hirugarren postuan sailkatzeko esperantza badaukat.

**G.** Norabait joateko asmorik?

**E.** Aurten, Granada eta Asturias ingurura.

**G.** Zer behar da piraguista ona izateko?

**E.** Teknika izatea oso garrantzitsua da.

**G.** Zela entrenatzen zarete?

**E.** Asteazken zehar igerilekuan, eta astebukaeretan, Bidasoan.

**G.** Zergatik piraguismoa?

**E.** Lagun talde bat elkartu eta izena ematea erabaki genuen.

**G.** Noiztik?

**E.** Duela hiru urtetik.

**G.** Noraino heldu nahiko zenuke?

**E.** Profesionala izatera,

noski.

**G.** Zer da lasterketa bateko gauzarik zailena?

**E.** Ateak ez ikutzea. Horrek, segundak gehitzen ditu eta.

**G.** Lasterketak neguan edo udan nahiago?

**E.** Errekek neguan ur gehiago izaten dute eta komenigarriagoa izaten da, baina udan ura epelago egoten da.



## KARTELDEGIA

### ESKUBALOIA

#### Bergara- Arrasate

Kadete mutilak.

Zapatua. 16:30. Labegarieta.

#### Bergara- Aloña

Kadete neskak.

Domeka. 11:00. Labegarieta.

#### Bergara- Arrasate

Jubenil mutilak.

Domeka. 12:15. Labegarieta.

### PILOTA

#### Profesionalak

Banakako txapelketa:

- Ariznabarreta- Armendariz

Binaka:

- Nagore eta Zezeaga-Berasaluzte VIII eta Errasti.

- Tolosa III eta Galartza-Errandonea II eta Nalda III

Zapatua. 16:45. Udala Pilotalekua.

### NESKEN IV. FUTBITO

#### TXAPELKETA

Zapatuan M. Altuna Institutuan.

#### Azkenak- Blue Star.

17:00

Domekan M. Altuna Institutuan.

#### Azkenak- The Road Island.

12:00

#### Nifis- Gu Geu.

12:00

#### Zutaz Pentsatzen- Potzu TZ

13:00

Arb. Antolaketa batzordea.

### GIMNASIA ERRITMIKOA

#### Ariznoa taldearen

erakustaldia

Domekan. 12:00

Antzuolako Pilotalekua.

### ESKOLA KIROLA

#### FUTBOLA

Guztiak zapatuan.

#### M.Lagundia- Zumaia

Infantil neskak.

11:00. Ipintza.

#### Aranzadi 13- Irun

Alebin neskak.

11:00. Ipintza.

#### Antzuola- Almen

Alebin mutilak.

10:00. Antzuola.

# Bergara preferente mailara

## Zuzendaritza taldeak elkartea lagako du

Seguraren aurkako partiduan 0 eta 3 irabazi ondoren, mahoneroek iaiz galdutako preferente maila berreskuratu dute.

Liga amaitzeko hiru jardunaldi geratu arren, 2. postuan sailkatutako Orioko taldearekiko puntu diferentzia nabarmena da eta, ondorioz, Bergarak mailaz igotzea lortu du jada. Enrike Nieto entrenatzaileak esan digunez "maila berreskuratzea ez da erreza izan. Liga bikaina egin dugu baina arazoak eman dizkiguten taldeak ere izan dira, Hernani esaterako". Era berean, gol gehien sartu eta gutxien jaso dituen taldea izan da bere mailan. Presidentea eta entrenatzailea pozik azaldu dira aurten egindako lanarekin, baina etorkizun iluna ikusten diote elkarteari.

### Klubaren etorkizuna airean

Iñigo Zaitegik aurten zuzendaritza lagako duela au-



Poza eta giro ona nagusitu ziren partidu ostean mahoneroen artean.

rreratu du eta horrek klubaren etorkizuna kolokan laga du. "Joan zen urtean presidente kargua lagatzekotan izan nintzen, baina Bergarako inor interesatuta ez zegoela ikustean, beste urte betez ekin nion lanari. Etor-kizunerako, Bergarako jende gaztea animatuko nuke zuzendaritzan parte hartu dezan. Futbol talde nagusia momentu onean aurkitzen da eta entrenadoreak ere

lan oso ona egin du. Sekulako giroa dago momentu honetan. Pena handia izango litzateke hau guztia ez aprobetxatzea".

Nietok ere momentuz ez du argi entrenadore lana egiten jarraituko duen ala ez. "Alde batetik, zuzendaritza berriak esan beharko luke hori. Jarraitzekotan, kontu askori buruz hitz egin beharko genuke, zelaiari buruz esaterako". B



### Vallejo eta Albusua txapelketa

Pako Vallejok eta Xabier Albusuak (argazkian) irabazi zuten Erramu Zapatuan jokaturako Frontenis Txapelketako finala, Uribarri eta Gallastegiri 25 eta 16 irabazi ondoren. Irabazleek trofeo bana eskuratu zuten Xabier Zabaleta kirol zinegotziaren eskutik. Txapelketan hamalau bikotek hartu dute parte. Argazkian, irabazleekin eta zinegotziarekin batera, epaile lanak egin zituen Maximo Zangitu ere agertzen da.

## Muru eta Idiakez txapelketa

**Bergarako** bikoteak Udal Pilotalekuan jokatu zen senior mailako Gipuzkoako finala irabazi egin zuen, Aretxabaletako Errasti anaien aurka 22-13 emaitza lortuz. Partidu hasieran aurretik jarri arren, aretxabaletarrek aurrea hartu zieten. Halere, bergararrek erantzun bikaina eman zieten. 18 tantura iritsiz gero, bergararrek ez zuten arazorik izan txapela herrian bertan geratu zedin. Zorionak! B

## Karatean bikain

**Katetan** oinarritutako 2. Karate Txapelketa jokatu zen Migel Altuna institutuan, Aste Santu aurreko igandean. Markel Larrañaga bergararra, 2. postuan sailkatu zen; Oier Tola 3. postuan eta Unai Zabarte bosgarrenean. Bestalde, Azkoitian, Aranzadi Shotoke taldeak 2. postua eskuratu zuen. B

## Txakur Leren Txapelketa

**Erramu** domekan jokaturako V. Txakur Leren Lasterketako garaila, berriz ere, Goyo del Real izan zen, 24 minutu eta 55 segunduko denborarekin. 2. postua, 7 minutura, Oñatiko Iñaki Muñozek lortu zuen, Axen Garitanoren txakur-rekin. 3. postua, bestalde, Oscar Espinosak lortu zuen 31:12ko denborarekin. B

**1. ETXEBIZITZAK**

**Saldu**

Pisua amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai Donostian. 76 31 79.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Pisua amueblatua salgai Martokon. 76 46 70.

Pisua salgai San Lorentzon. 95 m2. 907 44 88 53 (9:00-13:00).

**Errentan hartzeko**

Pisua alokairuan hartu edo konpartituko nuke. 76 40 33 (Ramon).

Lokala hartuko nuke alokairuan. Deitu 76 03 31 telefonora.

**2. GARAJEAK**

**Saldu**

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Masterrekan. Deitu 78 36 65 telefonoz (20:00-22:00).

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. AUTOAK/MOTOAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

Garajea salgai Aranerrekan (2 plaza itxita). 76 06 96.

Kotxe txiki batendako garajea salgai Iburgarain. 650.000 PTA. 76 57 93.

Garajea Torreakuan. 950.000 PTA. 76 19 72.

**Errentan emateko**

Garaje bikoitza alokairuan Torreakuan. Deitu 76 30 32 telefonora.

Garajea alokairuan Iburgarain. Deitu

76 16 38 telefonora.

Garajea alokairuan Aranerrekan. 76 46 54.

Garajea alokairuan Poligonoan. 76 32 58.

**Errentan hartzeko**

Garajea/ganbara alokatuko genuke. Deitu 76 50 00 telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 76 05 17.

Burdiñate inguruan garajea errentan

hartuko nuke. Deitu 76 70 63 telefonora.

**3. LOKALAK**

**Saldu**

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m<sup>2</sup>. 76 11 89.

Lokala salgai A. Fleming-en. 76 00 84/76 35 83.

Lokal komertziala salgai Martokon. 76 25 67.

Taberna bat salgai edo

alokairuan Antzuolan. 76 60 16.

**Erosi**

Zona industrialean 70 m<sup>2</sup> inguruko lokala erosiko nuke. Deitu 76 29 95 telefonora.

**Errentan emateko**

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m<sup>2</sup>. 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik

edo gelaka). Deitu 76 58 91 telefonora

Uberan 144 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. Biltegi eta lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. 76 35 09.

**Errentan hartzeko**

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko duzu Osintxon. Deitu 76 08 21 telefonora.

40-100 m<sup>2</sup> bitarteko lego baterako lokala alokairuan hartuko duzu Bergaran, herri erdian edo industrialdean. 76 24 33 (21:30-22:30)

**4. LANA**

**Eskaintzak**

Andre batek zaharra zaindu edo etxeko garbiketarako egintza egiteko lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebera eretan helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko lituzke. 76 56 66.

Klinika auxiliari batek gaisoak edo helduak

## ARDATZA Brikolaketa

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 76 18 93

## Bergara u Pair

IRLANDA, ESKOZIA,  
INGALATERRA, FRANTZIA,  
ESTATU BATUAK.  
AU PAIR, TABERNARI, DENDARI...  
ETA BESTE MILA LANPOSTU.  
Telefona eta faxa: 76 26 06

## YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar 3 Iburgari 8  
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

## IRURAK PINTURAK O.E

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOA eta FAXA: 76 09 32



## GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 76 32 48 / 76 34 50 • BERGARA



zaintzen ditu. 76 64 47.

47 urteko emakume batek astebukaera eta jaiegunetan zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Deitu 76 50 46 telefonora.

Neska batek orduka lan egingo luke. 939 47 2584.

Neska batek zaharrak zaindu (gauzez ere bai) eta garbiketa lanak egingo lituzke (orduka). 76 58 10 (Maria Jesus).

Tabernari lanak egingo nituzke. 76 03 31.

#### Eskaerak

Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 76 48 76.

25 urtetik beherako mutila behar da lanerako. 76 19 46 (Juan).

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 76 52 93.

Emakume euskalduna behar da bi ume zain-tzeko (7:15-15:15). 76 53 27.

Arrasaten emakume euskalduna behar da haur bat zaindu eta etxeko lanetarako. 76 11 57.

#### 5. IRAKASKUNTZA

##### Eskaintzak

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditut LOGSE 2 arte. Deitu 76 24 31 telefonora.

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Mate, fisika eta kimika klaseak. Lizentziatua. 76 70 40.

Fisika, informatika eta mate klaseak. Deitu 76 46 03 telefonora.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26 telefonora.

##### Eskaerak

Bi lagunek frantses klaseak hartuko lituzkete. 76 36 83.

2. Batxilergo Teknikoko fisika klaseak hartuko nituzke. 76 39 15 (Jon).

2. DBHko mate klaseak hartuko nituzke. 76 13 11 (21:00etatik aurrera).

#### 6. AUTOAK/MOTOAK

##### Saldu

Golf TDI kotxea salgai. 76 64 70 (Mikel).

Seat Malaga salgai. 150.000 PTA. 76 37 51.

Citroen BX kotxea salgai. SS-U. 76 58 00.

Roller jet karabana salgai. 5 plaza. 76 44 05.

T.E.C. King karabana salgai. Lau plaza. 74 31 37.

Opel Corsa 1.200 salgai. 72.000 Km. 76 03 47 (gauzez).

Denda karro bat salgai. 76 31 57 (gauzez).

#### 7. ANIMALIAK

##### Saldu/Eman

Larre behiak salgai. 16 06 16/88 50 07.

Txakurra (bi urte) oparitzen da. 939 47 25 84.

#### 8. DENETARIK

##### Saldu

Snowboard taula berria

salgai. 1,58 m., 57.000 pezeta. 76 25 03.

Neska baten jaunartze-ko soinekoa salgai. 76 10 94.

Ziklismoko oinetakoak salgai. 76 01 31.

Taxi geltokia traspasatzen da Antzuolan jubilazioagatik. 76 22 81.

Soinua salgai. 76 56 65.

Logela klasikoa salgai. 19 10 95 (Manoli).

Macintosh Centris 650 ordenagailua salgai. 79 97 60.

Mendiko bizikletak salgai. 76 49 39.

Idazmakina elektrikoa salgai. 76 10 63.

Aspes hozkailua salgai. 10.000 PTA. 76 06 81.

##### Erosi

Aspiradora bat erosi nahi dut. 76 04 86.

Diska-singleak erosten ditut. 52 65 77.

##### Galdu

Milagrosa kapitaxoa desagertu da. 76 13 68.



## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**Langai Udaletxean:** astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.  
Telefona: 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

#### SUKALDARIA

- Bilbo inguruan kokatutako enpresa baterako.

#### Baldintzak

- 3 urteko esperientzia kartadun jabetxeetan.
- Ibilgailua izatea.
- Erref. 6819/2

#### SUKALDEKO LAGUNTAILEA

- Catering enpresa baterako (Arrasate).

#### Baldintzak

- LH II Lanbide Hezkuntza, Ostalaritza, egina.
- Praktiketako kontratua.
- Erref. 7025/3

#### ARDATZ ANIZTUNERAKO TORNULARIA

- ALE baterako (Deba Garaia).

#### Baldintzak

- Bi urteko esperientzia tomu ardatz aniztuneko tornulari lanetan.
- Laguntzaile edo ploi espezialista lana egitea.
- Deba Garaian bizi izatea hobetsiko da.
- Erref. 7134/1

#### SUKURTSALEKO ZUZENDARIA

- Banketxe baterako (EAE eta Nafarroa).

#### Baldintzak

- Goi mailako titulua: Aktuariala, Ekonomia zientziak, Enpresa zientziak, Zuzenbidea, Injinerutza edo Matematikak.
- Ingelesa menperatzea. Euskara eta frantsesa jakitea baloratuko da.
- Finantza edo merkataritza arloan bi urteko esperientzia gutxienez.
- Erref. 7160/1



# Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 76 20 02

BERGARA

## LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 76 10 57



## Gallastegi

### Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

## Gaskide, S.L.

ITURGINTZA OROKORRA  
GASA ETA KALEFAKZIOA

☎ 76 49 00

HELBIDE BERRIA:  
Aritzetako San Migel 8-10  
BERGARA



San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R.S.I. 209374-55  
BERGARA

Gozogintzan  
aintzindari.

# Dena prest Helduen IV. Txotxongilo Mostrarako

## Datorren eguenean hasi eta domekara bitartean izango da Bergaran

**Datorren eguenean emango zaio hasiera Txotxongiloen IV. Nazioarteko Mostrari. Astebukaera osoan zehar, kaleko eta barruko ikuskizunak izango dira Bergaran. Euskal Herriatik, estatutik eta nazioartetik etorritako 11 talde izango dira.**

Taun Taun kolektiboak, Udalaren eta beste hainbat erakunde publiko eta enpresa pribaturen laguntzaz antolatutako helduentzako txotxongiloen jaialdiko emanaldiak Novedadesen, Kartzela Zaharrean eta Pol-Pol tabernan izango dira. Kale emanaldiak ere izango dira eta aurteko edizioetan egin zuten moduan, musika emanaldiak ere tartekatuko dituzte egitaraua osatzeko. Mostrak eguenetik domekara arte iraungo du.

Datorren eguenean, 18:00etan, mostrararen inaugurazio ofiziala egingo da Kultur Etxean. Oihulari Klown taldeak emango dio hasiera ekitaldiari eta Galestik etorritako Green Ginger taldeak "Gaston & Pedro" lana antzeztuko du. Ondoren, Mikel Diez zenaren omenezko erakusketa zabalduko da Kultur Etxeko erakusaretoan.

Mikel Diez bergararrak Kukubiltxo eta Kilimiliklik taldeekin egin zuen lan eta bai talde horietan eta baita ETBko Txokolatex saiorako egindako lanak ikusteko aukera izango da Kultur Etxean.

Eguenean, eguerdiko 12etan, La Conica Laconica talde katalanak "Ombres d'objets trobats" izenburuko lana antzeztuko du eskoletan. Iluntzeko 8etan, Novedadesen, berriz, Jordi Bertranek "Super Monsters" lana antzeztu-

ko du. Gaueko 10:30etatik aurrera, azkenik, La Conica Laconica taldearen "Ombres de vidre" lana ikusteko aukera izango da Pol-Pol tabernan.

### Emanaldi guztietarako bonoak

Novedadeseko emanaldietarako sarrerak 1.000 pezetan jarriko dira salgai takilan; ikasleek eta langabezia dauzkenek 600 pezeta ordaindu beharko dute. Bestalde, Kartzela Zaharreko emanaldietarako sarrerak 600 pezetan jarriko dira salgai; 400 PTA ikasle eta langabetuentzat. Jaialdiko emanaldi guztiak ikusteko bonoa 3.600 pezeta kostatuko da; 2.000 PTA ikasle eta langabetuentzat.

### Era guztietako hamaika talde

Green Ginger (Gales), Jordi Bertran (Katalunia), La Conica Laconica (Katalunia), Goloka (Bilbo), Pepe Otaol (Katalunia), Arbole (Zaragoza), La fanfarr (Katalunia), El chonchon (Argentina), El espejo negro (Malaga), El tendetero (Bilbo) eta Teatro Kaos (Galizia) taldeak lanak ikusteko aukera izango dute jaialdian. Barruko eta kaleko antzeztunak.

Bestalde, Urko eta Ramonek osatutako *El mejor amigo del hambre* izeneko bikotearen musika emanaldia ere iragarri da zapatu gauerako, El chonchon taldearen emanaldiaren ondoren, Kartzela Zaharrean. B



Txotxongiloen xarmarekin gozatzeko aukera izango dugu datorren asteburuan.

**IKUSBI**

**ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK**

Irala 5 ☎ 76 53 09

**ETXEPARE-BILINTX**  
**LIBURUDENDA**



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Oihana Garitano. Pintorea

## "Gero eta erakusketa gehiago egiten dira tabernetan"

**Oihana Garitano (21 urte) Leioako Arte Ederretako fakultatean 4. mailan ikasten ari da. Azkenaldian egindako pinturak ikusgai ditu egun hauetan, Nahikarin antolatu duen bere lehen erakusketan.**

**G.** Zer erakusten duzu Nahikarin?

**E.** Lehendik margotuta nituen 30 koadro dira. Estilo aldetik, figuratiboaren eta abstraktoaren erdibidean kokatuko nituzke. Koadro txikiak dira eta papera eta egurra erabili ditut euskarri moduan; pintura akrilikoz margotutakoak dira. Gaiari dagokionez, paisajekin eta gorputzarekin jokatu dut; gertuen ditudan gaiak dira: inguruko paisajeak eta nire neure eta inguruko gorputzak.

**G.** Zer moduz Arte Ederretako fakultatean?

**E.** Txikitatik gustatu izan zait marraztea, baina unibertsitatera joan aurretik zer ikasi nahi nuen pentsatzen hasi nintzen eta Arte Ederrak ikastea erabaki nuen. Oso gustora nabil, pintura ikasten ari bainaiz, niri gustatzen zaidana. Fakultateko gauzarik onena, jende berria ezagutu izana eta bertako giroa izan da. Informazio gehiago hartu eta barneratzeko balio izan dit.

**G.** Harremanik baduzu Beart-ekin?

**E.** Elkartarekin ez daukat harremanik, baina bai bertako kide diren hainbat artistarekin. Pello Alberdik, esate baterako, erakusketa muntatzen lagun-



Bere lehen erakusketa antolatu du Nahikarin.

du zidan. Irizar jauregian pintatzen dut Bergaran nagoenean, baina, batez ere, fakultatean egiten dut lan.

**G.** Aipatu egiguzu gustoko dituzun pintore batzuk.

**E.** Une honetan, Hernandez Pijuan katalanaren lanak zoratuta nauka. Herrikoen artean, Altuna eta Azkargortak egiten dutena gustatzen zait. Lazkano? Teknikoki oso ona da, baina estilistiki ez zait larregi gustatzen.

**G.** Tabernak toki egokiak dira arte erakusketak egiteko?

**E.** Ez dira ohiko tokiak, baina gero eta gehiago ikusten dira horrelakoetan. Berlinen-eta erakusketa asko egiten dira tabernetan. **B**



Jasone Osoro  
**Tentazioak**  
Ipuin liburua

Jasone Osoro Elgoibarko "Barren" astekariko kazetariaren lehen literatura liburua dugu hau. "Tentazioak" izenburupean hogeita bost istorio labur biltzen dira liburuan. Era askotako kontakizunak dira, baina gutxienez arteko lotura gaia da: sexua, maitasuna, gizon eta emakumeen artean sortzen diren sentimendu, korapilo eta ezin ulertuak...; eguneroko bizitzan gertatzen direnak, baina modu pertsonal batez kontatuak. Sujerentzia, erdi-esanak eta esan barik ulertu behar direnak kontatzen dizkigu idazleak. Malezia eta erotismo ukituak ere baditu pasarte askotan. Ipuin laburrak, irakurterrezak, estilo fresko eta arinez idatzitakoak.

- Elkarlanean. 167 orr. 1.500 PTA



Piztiak  
**Argia eta Itzala**  
Pop-rock

Hamarkada honetako hasieran estraineko diskoa ateratu zutenetik ez genuen ondarrutarren berririk. Orduan, pop tankerako sei kantu eder eskaini zizkiguten: The Cure taldearen eragina nabarmena, kitarretan batez ere. Oraingo honetan, soinu eta erritmo rokeragoekin datoz, "Argia eta Itzala" izeneko iraupen luzeko honekin, euren bigarren diskoa. 15 abesti, zein baino zein kitarreroago. Batzuetan, Dream Syndicate gogorarazten dute.

- Gaztelupeko hotsak. 2.200 PTA

**SALSA ETA  
MERENGE  
IKASTAROKAK**

Astelehen eta ostegunetan  
**19:30-20:30**  
Prezioa, 4.000 PTA,  
JAM Klub-eko bazkideek 3.500.

Egin zaitez **JAM KLUB**eko  
bazkide eta aprobetxatu  
gure abantailak!

**5.000 PTAREN TRUKE SARRERA  
DOAN URTE OSOAN ZEHAR**  
(ekitaldi berezietan izan ezik)  
**Informa zaitez Klubaren  
kultur irteera eta ekitaldiez.**

**Rolling  
Stones**

San Mamesen ikusteko irteera  
Prezioa: 8.000 PTA.  
Bidaia eta sarrera  
7.500 PTA Klubeko bazkideek



Izen-ematea  
76 35 81 telefonoan.

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Proiektuak. 2. Zoritxarra. 3. Beldur. Barreak. 4. Zein pertsonaren. Lehenengoa. Musika nota. 5. Bi lurralderen arteko muga. Opila. 6. Bokala. Istua. Bat. Errepikatuz, fruitu tropikala. 7. Begirada. Letoniako hiriburua. Sufrea. 8. Oinarrizko edari. Ezagutu. Alderantziz eta haur hizkeran, musu. 9. Gazte emea. Luzanga. 10. Emakume izena. Gesal.

**Goitik behera**

1. Ezina. 2. Ez gazia. Iparraldean, ordu. 3. Baztango herria. Selenioa. 4. Titanioa. Bokala. Uranioa. Bake hitzaren kontsonanteak. 5. Buruzagiak. 6. Sartu aditzaren infinitiboa. Bokala. Euskal aurrizkia. Röentgen. 7. Mirariak egiten dituenak. 8. Intsektu-mota. Tona. Bokala. United States. 9. Larruak. Barazki-mota. 10. Gorotza. Hotzak eraginiko ubeldura.

**Soluzioa**

10. Kaka. Ospel. 9. Azalak. Aza. 8. Oti. T. A. US. 7. Agintariak. 6. Sar. A. Iz. R. 5. Erreta. Se. 4. Ti. E. U. BK. 3. Estremsura. 2. Gotoa. Oren. 1. Gotik behera. 10. Ane. Kresal. 9. Riga. S. 8. Ur. Biz. Ap. 7. Tarta. 6. A. Tua. I. Ko. 5. Irak. 4. Noren. A. La. 3. Erretak. 2. Zorigaitza. 1. Ezker eskuma.

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

**Zein da kale honen izena?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Leku-Berri** merenderoan izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Itsaso Goenagarentzat** izan da Toki-Ona bodegoian bi lagunendako afaria. Zorionak Itsasori! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Muinondo azpikoa**. Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-B**.

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: 2: 3:

Izena-deitura: Telefonoa:

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

**LEKU-BERRI MERENDEROA**

Irimoegi behekoa z/g, ANTZUOLA  
Tf. 76 60 94

**Carballinokoa (Orense) jaiotzez, Secundino Rodriguezek 30 urte bete ditu udaltzain postuan. Ajente heteranoenetakoa dugu, beraz, Secundino. 60 urte ditu eta bere semeetako bati esker aitona da jadanik.**

## Secundino Rodriguez

**Lana, egunez ala arratsaldez?**

Egunez hobeto.

**Udaltzaingoan ala patruilan?**

Patruilan.

**Lanerako sasoirik onena?**

Udaberria, duda barik.

**Lanik atsegina?**

Trafikoa zuzentzea.

**Eta gorrotagarriena?**

Ez daukat, ezin naiz kexatu.

**Txapelarekin ala txapelik gabe?**

Hobe txapelik gabe...

**Multa asko jartzten dituzu?**

Beharrezkoak bakarrik. Iaz 100 bat.

**Zergatik jartzten dira multa gehienak?**

Gaizki aparkatzeagatik.

**Zela konpondu daiteke aparkalekuen arazoa?**

Soluzio nekeza du horrek.

**Zuri, multa asko jarri dizute?**

Batere ez. Eta 22 urte daramatzat kotxearekin.

**Udaltzaina izango ez bazina, zer izan nahiko zenuke?**

Ez dakit, fabrikaren bateko langile.

**Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**

Brikolajea, etxean txapuzatxo batzuk.

**Aste Santuan zer egin duzu?**

Galizian izan naiz, baina oso eguraldi txarra izan dugu.

**Galizia ala Euskal Herriko sukaldaritza?**

Biak, hemengoa ere asko gustatzen zait.

**Gustoko janari bat?**

Mariskoa, baina denetik jaten dut.

**Orujoa gustatzen zaizu?**

Ez naiz orujozalea.

**Sukaldari ona zara?**

Oso txarra.

**Zure bertute eta defektu bat?**

Bertuteak, besteek esan behar eta defektuak, asko.

**Irratia ala telebista?**

Telebista.

**Gustoko saio bat?**

Lehiaketak.

**Lehiaketaren batean hartuko zenuke parte?**

Ez.

**Kirol bat?**

Futbola.

**Real Madrilek 7. Europako Kopa lortuko du?**

Ez dut uste.

**Loterian edo kinielan jokutzen duzu?**


Bai, *primitivan* eta kinielan.

**100 milioi irabazita, zer egingo zenuke?**


Ondo bizi eta bidaiatu.

**Nora egingo zenuke bidaiia?**

Egiptora joango nintzateke gustora asko.




**OIHANA GARITANO  
KORKOSTEGI**



margo-erakusketa

**NAHIKARI** taberna

Masterreka 20 Tf. 76 57 71



Ezozki auzoa z/b, SORALUZE. Tf.: 75 10 01

**EZOzi**  
Jatetxea

Banketeetarako lekuri  
aproposena.  
90 lagunendako tokia.

**IBARGUREN PENTSUAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



BANATZAILEA

San Pedro 3 Tf. 76 23 79

**EDEL**  
TAPIZDENDA

*Etzerako artikuluetan  
aukerarik haundiena  
eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**



## Santa Marinako gurutze-bidea, 1946

Aste Santuan oraindik egiten dira elizkizunak. Halere, garai batean jendetsuagoak izaten ziren eta prozesioa ere egiten zen Bergaran. Beste herri batzuetan prozesioa egiteko ohitura gorde egin da, Balmasedakoa, Bilbokoa eta Segurakoa, esate baterako, oso garrantzitsuak eta jendetsuak dira. Bergaran, ordea, aspaldi ez da antolatzen.

Aste honetako argazkia 1946. urteko Santa Marinako gurutze-bidean ateratakoa da, San

Martzialetik behera, Oxirondo inguruan (Gardakoa Zibilaren lehengo koartela ikus daiteke bertan). Honako hauek dira bertan agertzen diren izenak ezkerretik hasita: Don Buenaventura Ariznabarreta Santa Marinako parrokoa, Juan Igartua (aurrean), Abdon Sasieta (Jesusen irudia eramaten atzealdean), Pedro Gardoki (Jesusen irudia eramaten aurrean), Daniel Askasibar (eskuman), Martin Uribesalgo "Txarra" eta Juan Damian Azkarate.

### OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!



**BEREZITASUNAK:**  
BIZKOTXOAK  
ERRELENOAK  
TOSTOIAK

**MUJIKA GOZOTEGIA**

Artetxale, 3 BERGARA  
☎ 76 10 34



**zumelaga**

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURIA

Tf. 943 71 24 25

Jaioberri, haur eta neska-mutikoentzako moda



Zabaldu  
berria  
ARRASATEN!




Confetti



TXIKI LAKET  
Erdikokale 10 ARRASATE  
Tf. 79 93 33

# UDABERRI-UDAKO MODA BERRIA!



UNITED CO  
OF BENETTONI

Maalako Errabala, 13  
ARRASATE